

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2004ko irailaren 10a • IV. urtea • 167. zenbakia • DOAN BANATZEKO



IÑAKI URIA

“Orain arteko prozesua injustua izan da, eta ezin dugu pentsatu epaiketa justua izango denik” /9

Goienka2a

Bildumen garaia hasi da: gureko saltokiek makina bat dituzte



AINZANE IRIZAR

Zubillagako saihebidia zabalik dago

Arantzazuko Amabirjinaren egunean, egunean, zabaldu zuten Zubillagako saihebidia. Gipuzkoako Diputazioko eta Batzar Nagusietako ordezkariak eta Oñatiko Udalekoek inauguratu zuten errepide berria. Saihebidia berri horrek bi kilometro ditu eta biribilgunea bana muturretan. Bi urte behar izan dituzte lanak bukatzeko, eta, lehenago zabalitzea nahi zuten arren, obrak luzatu egin dira zailtasunak izan dituztelako. Bi kilometro horietan ez dago tunelik, baina horma handi bat egin dute eta Urkulu ibaiaren gainean, sei begiko zubibidea egin dute. Datuen arabera, 10.200 auto igaroko dira egunero Zubillagako saihebidetik. /4

ASTEKO GAIA: DOMEKETAN ZABALTZEA EKAR DEZAKE

Merkataritza arautu egingo dute laster

Lehen aldiz, Debagoieneko merkataritza sektorea arautu egingo du Eusko Jaurlaritzak urte bukarerako, Estatu osorako Madril prestatzen ari den derrigorrezko lege baten ondorioz. Orain arte, EAEn, merkatariek euren kabuz arautu dute arlo hori, baina legeak merkatariei eskuak aske uzten dizkie jaiegunetan zabalteko,

eta, askoren iritziz, legeak ireki dezake liberalizaziorako atea.

Eusko Jaurlaritzaren asmoa da alde guztiekin berba egin ondoren egitea araua, baina zaila izango da, oso iritzi kontrajarriak daude eta. Ibarreko merkatariek legearen aurka daude; kontsumitzaile batzuek, aldiz, ondo ikusiko lukete aldaketa. /2-3

Elorregi eta Epele lotuko dituen autobideko tunela gaur zulatu dute

Jose Joan Gonzalez de Txabarri Gipuzkoako Diputatu Nagusia eta Javier Zurriarain Bide Azpiegiturarako Diputatu bertan zirela, gaur goizean amaitu dute zulatzen Elorregi eta Epele arte-

ko tunela. AP-1 ordainpeko autobideko tunel honek, Ikastaundi izenekoak, 1,2 kilometro luze izango ditu. Gaur egin duten leherketarekin bi muturrak lotu dituzte.

DEBAGOIENA

Amanek dio 2005ean hasiko direla 'Euskal Y'-a eraikitzen

Garraio sailburuak esan du datorren urtean hasiko direla Euskal Y-a eraikitzeko lanak. Irundik Zumarragara bitarteko zatia egingo dute lehenbizi. Lanak 2005eko lehen hiruhilabetean hasiko dituzte, tarte horretako hamar gunetan. Zati horrek 34 kilometro izango ditu, eta 584,5 milioi euroko aurrekontua. /5

DEBAGOIENA

Joxe Arantzabalek liburuan jasoko ditu minbiziaren kontuak

Joxe Arantzabal irakasleak liburuan jasoko ditu minbiziak sortu dizkion gorabeherak. 18 atal izango ditu liburuak, Sustatu.com albistegi elektronikoan argitaratuak denak, orain dela bi urte minbizi atzeman ziotenean lehena eta gaur, egubakoitza, azkena. Medikuak esan dit minbiziak dulara da liburuaren izenburua. /4

DEBAGOIENA

Epeleko biribilgunea hilabete barru zabalduko dute

Datorren hilabetean, urriaren erdialde inguruan zabalduko dute Epelen egiten ari diren biribilgunea. Hori eman du aditzera Foru Aldundiak. Lanak bukatu arte, ordea, Arrasatetik Elorrio edo Durango aldera joan nahi duten gidariek Elorregiko biribilgune-raino joan beharko dute Bizkai-ko noranzkoa hartzeko. /5

IKER

SUKALDEAK: Udala Plaza z/g, Arrasate / 943 79 00 43
BAINUAK: Zarugalde 52, Arrasate / 943 79 99 42

ETA ORAIN OÑATIN ERE BAI:
San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR

Merkataritza egutegi

- Sektorearen liberalizaziora bidean urratsa izan daiteke
- Urtean zortzi jaiegunetan zabaldu ahal izango da
- 72 orduko lan-astea ezarriko luke legeak

LEIRE KORTABARRIA

Aspaldiko eztabaida bat mahai gainean dago berriro: ea saltokiak zabalik egon beharko liriateke urteko hainbat domeka eta jaiegunetan. Alde asko daude auzi honetan sartuta, eta guztien interesak uztartzea zaila izango da, baina hori egokituko zaio Eusko Jaurlaritzari abendu inguruan. Izan ere, orduan egingo du Jaurlaritzak EAEn lehenengo aldiz merkataritza sektorea arautzeko dekretu bat. Oraingoz, merkataritza-gune handi batzuek, merkataritza txikiak, kontsumitzaileak, sindikatuek... iritzia azaldu dute; askotan, iritzia kontrajarriak.

Espainiako Gorteak lantzen dabilta Estatuak sektore hori arautzeko izango duen lehenengo legea, orain arteko behin-behinekoren arauaren orde. Legea derri gorrez aplikatu beharko dute erkidegoek, tartean EAEk, eta Jaurlaritzak parte hartu beharko du arautzean. Horrek aldaketa ekarriko du gurean: izan ere,



Debagoieneko eredu saltoki txikietan dago oinarrituta; hortaz, ikusteke dago lege berriak gurean zenbaterainoko eragina izango duen.

INAKI ITURBE

Oraingo egoera

- Madrilek egindako Dekretu Lege batek sektorea liberalizatzeke joera zuen, baina hori ez da EAEn aplikatu.
- Sektoreko alde guztiak konprometitu ziren jaiegunetan ez zabalzera.
- Paperean, merkataritza-gune handiek zabalteko eskubidea dute jaiegunetan, baina ez dute horrela egiten.
- Eusko Jaurlaritzak ez du sektorearen arautzean inongo parte hartzerik.

Lege berria ezarrita

- Lehenengo aldiz, Estatu osorako derri gorrezko lege bat izango da.
- 8 eta 12 jai egun bitartean zabaldu ahal izango da, eta erosteko egun erakargarriak aukeratu beharko dira.
- Gehienez ere 72 orduko ordutegia finkatzen da. 300 m²-tik beherakoek ordutegi askatasuna izango dute.
- Jaurlaritzak legea aplikatu beharko du EAEn, eta sektorea liberalizatzen hasi.

Abuztuan ere, zabalik

Debagoienean, abuztuan edo oporraldi luzeetan, denda gehien-gehienak itxita daude. Horren gainean ere hainbat ahots entzun dira Merkataritza Ordutegien Lege Aurreproiektuaren inguruko polemikaren harira; batzuen esanetan, urtean zein domeka edo jaiegunetan zabalte erabakitzea baino garrantzitsuagoa da arazo hori konpontzea.

Izan ere, dende zabal dezaten alde agertu diren debagoienar gehienek horixe aipatu dute: asteburu arruntetan baino, nahiago lukete dende ez balituzte ateak itxiko hainbeste egun jarraian.

Badago, egon ere, horren aldeko merkataririk. Ibarrean, domeketan eta abuztuan zabaltearen dutenik oso-oso gutxi dago; bakarrenetarikoa izango da Joxe Antia harakin bergararra. Bere ustez, herritarrok zerbitzu horren falta sumatzen dute dendak abuztu osoan ixten dutenean: "Turista-eta asko etorri izan zaizkit harategira ogitartekoa egitekoak erostera, dendak itxita zeudela-eta. Turistiko izan nahi duen herri batean, hori ulergaitza egiten zait", diosku. Bere ustez, "jendea gero eta zerbitzu gehiago ematea ona da", eta gaineratzen du merkataritza guztiok ados jarri beharko liriatekeela guztion beharrak ase daitezten.



GAINDEGI

- Eguneko menua
- Kafetegia
- Plater konbinatuak
- Entsaladak
- Ogitaratekoak

Astelehenetik egubakoitzera eguneko menua!

Lapuri 4, Zigarrola auzoa. ARRASATE Tel.: 943 79 70 60

Basaloreren zerbitzu berriak

- **Tituludun medikua:** homeopatia, naturopatia, iriologia.
- **Tituludun dietista.**
- **Aromaterapia:** estresa, beldurrak, insomnia...
- **Reikia.**



Zarugalde 8 behea.
Tel.: 943 79 56 38
ARRASATE

a arautu egingo dute

orain arte, merkatariek eurek, barne itunen bidez, arautu izan dute sektorea.

LIBERALIZAZIOAREN HASIERA

Lege aurreproiektuak, paperean, ez du aldaketa handirik ekartzen indarrean dagoen dekretuaren aldean. Dakarren berri tasuna da derrigortasuna, eta sektorearen liberalizazioaren lehenengo aztarnak. Orain arte, EAEn, dende ez dute jaieguntan zabalitzen, hala adostu dute-lako, nahiz eta askatasun osoa duten hala egiteko. Era berean, 2000ko dekretuak 90 orduko lan-astea ezartzen zuen; legeak 72 ordukoa finkatzen du.

Lege berriak zortzi eguneko gutxienekoa ezartzen du, baina Jaurklaritzaren asmoa da bere eskumenez baliatu eta gutxieneko horren azpitik arautzea. Aldi berean, denda ordutegia arautzea egokituko zaio. Segurua da alde guztiekin ahalik eta adostasun handiena bilatuko dutela: "Handiekin, txikiekin, sindikatuekin, kontsumitzaileekin... berba egingo dugu. Azterketak eskatu ditugu, jakiteko zein eragin izango duen neurri berriak", dio Merkataritza Sailak.

ALDEKO ETA AURKAKO IRITZIAK

Leku guztietan ez da berdina, ordea. Donostian denda batzuk zabalteko eskubideaz baliatzen diren bezala, Debagoiengan ia inork ez du hori egiten, barne akordioa dela-eta. Lege eta dekretu berrien eskutik, egoera hori aldatu egin daiteke, ituna balio gabe geratu litzateke eta. Zaila da esaten Debagoiengan aldaketarik egon-

go litzatekeen edo ez, ordea, gehienbat saltoki txikietan oinarritutako eredu dagoelako ibarrean, eta baita gureko saltoki-gune handi bakarrak, Eroski hipermerkatuak, ez duelako jaieguntan zabalduko. Baina, bestalde, ikusteko dago Gasteizko saltoki handiek zer egiten duten, horiek debagoiendar asko eta asko erakartzen dituzte eta.

Gureko merkataritza txikiok ezeko borobila ematen diote egitasmoari, eta esaten dute oraingo egoera kontsumitzaileok ere egoki ikusten dutela. Herritar askok bat egiten dute merkataritza txikien aldarrikapenekin, baina iritzi desberdinak badaude: askok ondo hartuko lukete aldaketa. Besteek aipatzen dute jaiegun jakin batzuetan "oso komenigarria" dela erosketak egin ahal izatea: oporraldi luzeetan, Gabonetan... hainbeste egun jarraian dendak itxita egon barik. Kontsumitzaileen elkarte askok ere zabalteaz eskatzen dute.

Sindikatuak merkataritza txikien alde egin dute. LABek plazaratu zuen lehen iritzia, legea "erostetxe handien interes ekonomikoaren" ondorio dela salatuz, eta Lakuari eskatuz oraingo egoerari eutsi diezaion.



MERKATARITZA-GUNE HANDIEI BEGIRA

Legea ezartzeak saltoki-gune handiei askatasuna emango lieke sektorearen barne ituna utzi eta hainbat jaieguntan zabalteko, eta merkataritza txikiak horri begira daude. EAEn, Ikea multinazionalak hori egingo duela jakina da. Ibarreko merkataritza-gune handi bakarrak, Eroski, dio orain arteko politika jarraituko duela: "Ez dugu zabalduko, gure kompetentziak ez badu zabalitzen; eta Debagoiengan, ez dugu pareko kompetentziarik".



JOXE ANTIA

MERKATARIA

Neuk domeketan ere zabalitzen dut harategia; izan ere, uste dut herritarro zerbitzua eman behar zaiela. Auzi honetan, alde guztien arteko akordio bat lortu beharko litzatekeela uste dut.



M. LUISA ASEGINOLAZA

MERKATARIA

Dendariok ordu asko ematen ditugu lanean, baita zapatuetan ere. Jaieguntan zabalteaz gune handiei komentatu zaie, ez guri. Badago erosketak egiteko nahikoa aukera, jaieguntan zabaldu barik.



PAQUI HURTADO

KONTSUMITZAILEA

Jaieguntan dendak zabalik egotea ez zait beharrezkoa iruditzen; bestela, dendariak ez dute atsedunik izango. Uste dut badagoela asti nahikoa erosketak egiteko, norberak denbora ondo antolatzen badu.



JOSU ZABALA

KONTSUMITZAILEA

Ez dut behar-beharrezkoa ikusten jaieguntan zabalteaz, baina, hala erabakitzen bada eta merkatariek nahi badute, nik ondo ikusiko nuke eta proba egitera animatuko nintzateke.



ZURIÑE MENDIA

TXANDA ELKARTEKO PRESIDENTEA

Elkarrek proiektu horren aurka gaude, aho batez. Inork ez du horren inguruko ezer entzuterik ere nahi. Astean behin, egun osoa zabalik egoteko prest egongo ginateke, baina ez jaieguntan.

Txinatar jatetxea
DRAGON ORIENTAL

Maritxu Kajoi
egunerako menu bereziak

Deitu eta har ezazu toki lehenbailehen!!!
943 79 85 33

Araba etorbidea 3 ARRASATE

ABUZZUAN ZABALIK!

Hemen
GARBIKETAK

Garbiketetan profesionalak gara

www.hemen-garbiketak.com

Intxartxueta 16 behea
ESKORATZA
Tel.: 943 71 48 45
Faxa: 943 71 30 58

C&C Matrikula zabalik!

LLONGUERAS AKADEMIA

IRAKASKUNTZA ZENTROA
Ez zaitez gutxiagorekin konformatu

Ile-apainketa eta estetika

- Titulu ofiziala
- Erresuma Batuan 3. maila
- Llongueras titulua

Olagibel kalea 61 B, GASTEIZ.
Tel.: 945 12 03 60
Posta-e: ces-llongueras@ya.com

Hamar mila automobilek erabiliko dute Zubillagako saihsbide berria

Hilabete baino lehen argiztatuko dituzte bi muturretan dauden biribilguneak

OIHANA ELORZA

Eguenean zabaldu zuten Zubillagako saihsbidea. Bi kilometro ditu eta biribilgune bana bi muturretan. 5,5 milioi euroko aurrekontua izan du eta ia bi urte behar izan dituzte lanak bukatzeko, zailtasunak izan dituztelako.

Arantzazuko Amabirjinaren egunean zabaldu zuten Zubillagako saihsbide berria, egunean. Inaugurazioan, Jose Juan Gonzalez-Txabarri ahaldun nagusia, Leire Ereño Batzar Nagusietako presidentea, Jabier Zuriarrain Bide Azpiegituretako diputatua eta Andoni Gartzia Oñatiko alkatea egon ziren, besteak beste.

Gipuzkoako ahaldun nagusiak Oñatik azpiegituren eskasia duela aipatu zuen, eta horrelako errepideek Oñatik ateratzeko eta Oñatira sartzeko lagunduko dutela.

HORMA ETA ZUBIA

Zubillagako saihsbideak bi kilometro ditu eta biribilgune bana muturretan. Ez du tunelik, baina bai Urkulu ibaiaren gainean egindako zubia, isostatikoa eta sei begikoa. Horma bat ere egin dute, eta horrek lan handia eta denbora luzea eskatu dituela adierazi du Jabier Astrain obrako zuzendariak. Egutero 10.200 auto pasako dira bertatik.



Aurrekuaren ostean, zinta moztu zuten agintariak.



Obrako arduradunak, lanak nola egin dituzten azaldu ziren gonbidatuei.



Ahaldun Nagusiak, errepide honek jendea Oñatira etortzeko lagunduko duela uste du.



Saihsbideak bi kilometro ditu eta Zubillaga auzoa atzetik pasatzen du.

Bake bideari sendo ekiteko deia egin du gotzainak Arantzazun

Ibarretxe Lehendakariak mezua bidali zion Alderdi Sozialistari

JULEN IRIONDO

Atzo, eguna, Arantzazuko Amaren eguna ospatu zuten eta urtero bezala, erromesaldia eta meza nagusia egin zuten Arantzazun. Fededunekin batera, Jaurilaritza, Diputazio eta Oñatiko Udaleko ordezkariak izan ziren mezetan.

Joan Mari Uriarte Gipuzkoako gotzainak eman zuen meza nagusia Arantzazun, Amabirjinaren egunean. Gotzainak, bake bideari urrats sendoz ekiteko dei egin zuen homilian, ETA desagertzeko nahia ere azaldu zuen eta biktimak izan zituen gogoan. Presoen eta, oro har, herritarren eskubideen alde ere jardun zuen.

Gotzaina eta fededunekin batera, Juan Jose Ibarretxe Lehendakariak, Joxe Juan Gonzalez-Txabarri Gipuzkoako Ahaldun Nagusiak, Andoni Garzia Oñati-



Oñatiko Udal ordezkariak ere egon ziren elizkizunean, Andoni Garzia alkatea buru.

ko alkateak eta zinegotzi gehienek hartu zuten parte elizkizunean. Amaieran, basilikako ate nagusitik txalo artean atera zen Ibarretxe kanpora.

Goizean, urtero bezala, erromesaldia egin zuten Oñatitik Arantzazura hainbat herritarrek. 07:00etan abiatu ziren herriko plazatik.

Artzain Gazta elkarteak egoitza berria ireki du

Debagoieneko bost gaztagile gonbidatu dituzte

OIHANA ELORZA

Idiazabalen zabaldu du gaur, egubakoitza, eguerdian, eta Oñati eta Aretxabaletako bost gazta ekoizle gonbidatu dituzte. Bestalde, Nikolas Segurola Gomiztegi artzainak hirugarren saria irabazi du Ordiziako feria nagusian.

Gomiztegi baserriko Nikolas Segurola, Azkarretako Ramon Ugarte, Urriagaingo Julian Korta eta Aldai baserriko Nestor Altzelai —oñatiarrak— eta Aretxabaletako Etxeberri baserriko Jose Ramon Murgiondo artzainak gonbidatu dituzte Artzain Gazta elkarteak zabaldu duen egoitza berriaren inauguraziora. Egoitza berria gaur, egubakoitza, zabaldu dute, Idiazabalen.

Egoitza berria aurrekoa baino zabalagoa, handiagoa da eta produktuak manipulatzeko kon-

trol kalitate gela, produktuak hozteko bi gela eta beste bi biltegi ditu. Baita ekitaldiak eta batzarrak egiteko beste bi areto ere.

ARDI LATXAREN GAZTA PRODUKTOREAK Artzain Gazta elkartearen dauden ekoizleen %80 Idiazabal jatorrizko izendapenaren barruan daude. Guztiek latxa ardi esnearekin egiten dute gazta.

Elkarteak bi helburu nagusi ditu: gaztaren kalitatearen alde egitea eta merkatu berrietara zabaltzea.

Ardi Gazta elkarteak ekoizleek latxa ardi esnearekin egiten dituzte gaztak

DEBAGOIENEAN LABUR

Epeleko biribilgunea lauzpabost aste barru zabalduko dutela esan du Diputazioak

Datorren hilabetean, urriaren erdialde inguruan zabalduko dute Epele egiten ari diren biribilgunea. Gipuzkoako Foru Aldundiaren arabera, lanak oraingo martxan jarraitzen badituzte, lauzpabost aste barru bukatuta izango dute Elorregitik Arrasateko Kataide industrialdea bitartean egiten ari diren biribilgunea. Lanak bukatu arte, ordea, Arrasateko Elorrio edo Durango aldera joan nahi duten gidariak Elorregiko biribilguneraino joan beharko dute Bizkaiko noranzkoa hartzeko. Orain arte Elorrio aldera hartzen zen bidegurutzean kartel bat jarri dute gidariak ohartarazteko. AP-1 ordainpeko autobidearekin lotura izango du Epeleko biribilgunea.

Debagoieneko Epeleko hondakin araztegia egiteko aurreproiektua onartu dute

Diputazioak Debagoieneko Epeleko hondakin uren araztegia egiteko aurreproiektua onartu du. Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Ur Partzuergoak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2003-2006 hitzarmenaren bitartez, saneamendu inbertsioak adosten dituzte. Aurreproiektuak, araztegia eraikitzeko lanak ez ezik, Zubillagako isurketak eramateko kolektorea ere aipatzen du; Oñatiko kolektorearen bitartez garraiatuko dira. GI-629 errepidea desbideratzea ere jasotzen du, araztegiaren lursailetik pasatzen delako.

Bergarako araztegia egiteko dirulaguntza eman du Eusko Jaurlaritzak

Eusko Jaurlaritzak 14.652.000 euro emango ditu Bergarako ur hondakinen araztegia egiteko. Horixe erabaki zuten martitzenean egin zuten batzarrean. Zehazki, Gipuzkoako Ur Partzuergoarekin eta Foru Aldundiarekin kolaborazio hitzarmena onartu du. Jaurlaritzak emango duen dirulaguntza lau alditan emango ditu, 2004 eta 2007 urteetan zehar. Bergarako ur hondakinen araztegia Sorluzerako bidean dagoen Mekolalde auzoan egingo dute. Gipuzkoan egingo duten azken araztegia izango da.

Datorren urte hasieran hasiko dituzte 'Euskal Y'-aren lanak

OIHANA ELORZA

Irundik Zumarragarako bitarteko zatia egingo dute lehenbizi. Lanak 2005eko lehen hiruhilabetean hasiko dituzte, tarte horretako hamar gunetan. Zati horrek 34 kilometro izango ditu eta, 584,5 milioi euroko aurrekontua.

Datorren urte hasieran, 2005eko lehen hiruhilabetean hasiko dituzte Euskal Y-aren lanak. Hori xe esan du aste honetan Alvaro Amann Garraio eta Herri Lan sailburuak.

Irun eta Zumarraga lotuko dituen zatia egiten hasiko dira eta

lanak hamar gunetan hasiko dituzte, Euskal Y-a pasatuko den hamar herritan. Zati horrek 34 kilometro izango ditu eta 584,5 milioi euroko aurrekontua du.

Alvaro Amann sailburuak esan duenez, hiruzpalau urte beharko dituzte lehendabiziko zati hori egiteko. Helburua da Gipuzkoako zatia 2010erako bukatuta egotea. Eusko Jaurlaritzak bidali du Europara bere proiektua eta datorren azaroko aldizkarian argitaratu eta lanen baimena eskuratzea espero du. Espainiako Sustapen Ministerioari esan dio 2010erako bukatuko dutela esaten ez badiote proiektu gutzia Gasteiztik zuzenduko dutela.

Lekuz aldatu gara

Orain hemen gaude:
Arrasate pasealekua 29, behea, ezk.
ARRASATE
Tel.: 943 79 29 13 / 653 133 281

Lorenzo M. Joosten M.S.

Medikuntza naturalean espezialista (Erreg. zenb. 9700118)

• Txinatar medikuntza • Akupuntura

ORDUTEGIA:

Astelehenetik egubakoitzera: 09:00-13:00 eta 16:00-20:00

Joxe Aranzabalek liburuan jasoko ditu minbiziak sortu dizkionak

18 ataletako azkena gaur, egubakoitza, argitaratu du 'Sustatu'-k

GOIENKARIA

Medikuak esan dit minbiziak dudala da liburuaren izenburua. Joxek izenburu horrekin eman zuen bere gaixotasunaren berri Sustatu-n, eta aldizkari elektronikoko horretan idatzi dituen kapituluak eta jaso dituen erantzunak bildu ditu liburuan.

Duela bi urte, 2002ko irailaren 11n, diagnostikatu zioten minbizi Joxe Aranzabal irakasle arrasatearrari, eta egun gutxira, Sustatu aldizkari elektronikoa eman zuen bere gaixotasunaren berri. Medikuak esan dit minbiziak dudala idatzi zuen Joxek, eta izen horixe jarri dio martxoan Elkar argitaletxearen eskutik kaleratuko duen liburuak.

Minbiziak sortu, eragin, sentitu, erakutsi, kendu eta aldatu dionaz mintzatu da Joxe Sustatu-n idatzi dituen 17 kapituluetan. Gaur, egubakoitza, liburuak izango dituen 18 ataletako azkena argitaratu du Goienaren aldizkari elektronikoa.

MARTXOAN KALERATUKO DU

Orain, liburuan jaso ditu Sustatu-n idatzi dituen 18 kapituluak. Horiez gain, esperientzia eta bizi-

Sustatu
Teknologia, Ekonomia, Kultura.

← Itzuli orri nagusira | Bidali hau | Inprimatu

Agur esateko ordua

Joxe Aranzabal | 2004-09-10 | 10:35 | Osasuna

Bihar bi urte, minbiziaren atzaparkada nozitu nuen. Harrezkero, hara eta hona ibili naiz, tratamenduetan. Baina, azkenik, hasi naiz berriro lanean. Beraz, artikulua honekin amaituko da nire kontakizuna gaixotasunaren gainean.

Irailaren 1ean hasi nintzen berriro lanean HUEZIN, Mondragon Unibertsitatearen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean. Lankideak agurtu, oportetako kontuak elkarri esan, eta hasi gara poliki-poliki laneko kontuetan murgiltzen.

Berez, lehenago itzuli behar nintzen fakultatera, ekainaren 15a ezkerreko banuen-eta senda agiria, baina zenbait gorabehera ezusteko izan nituen, eta horiek atzeratu ni itzultzea.

Lehen ezustekoa: tronbosia

Ekainaren 18an, prestatzen ari nintzela aurtengo Musikaire jaialdiaren lehen ekitaldira joateko, zerbait arraro sentitu nuen ezkerreko hanka: presio handia egiten zidan izterrak, eta hankako sagarrak gogor-gogor nituen. Pieza batzuk entzun eta etxera egin nuen, oinez eta kostata, nahiz eta bidea laburra izan. Biharamunean ere, irten kalera, ibili apur bat, eta ezin aurrera egin.

'Sustatu.com'-en kontatu ditu Aranzabalek bere minbiziaren gaineko gora beherak.

Duela bi urte atzeman zioten minbiziak nola bizi duen kontatzen du Joxek

pen horiek jaso dituzten hainbat erantzun ere ekarriko ditu liburuak.

Liburua martxoan kaleratuko dute, Elkar argitaletxearen eskutik. Hitzaurrea, bestalde, Mikel Irizar GOIENKARIAko kolaboratzaileak egin dio, eta hitzostea, Luis Fernandez kazetari eibartarrak.

MONDRAGON | ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA
UNIBERTSITATEA | FACULTAD DE CIENCIAS EMPRESARIALES

2004
2005

GRADUATU ONDOKO
i k a s k e t a k

kurtso honetako eskeintza

- **MBA** > Enpresen Zuzendaritzako Masterra
- **MFIN** > Finantza Zuzendaritzan Masterra
- **MBB** > Bankan eta Burtsan Masterra (Erdi presentziala)
- **MWEB** > Web aplikazioen Eredugintza eta Garapenean Masterra
- **MSI** > ERP-BAAN Enpresa-Informaziorako Sistematan Masterra
- **MDM** > Marketing Zuzendaritzan Masterra
- **MSCM** > Garraioa eta Hornikuntza Katearen Kudeaketan Masterra

informazio-hitzaldiak

2004ko irailaren 15ean (asteazkena)
Ordua: 19:00
Lekua: Enpresa Zientzien Fakultatea
Larraña, 16 - Oñati

2004ko irailaren 14an (asteartea)
Ordua: 19:00
Lekua: Bidasoako Campusa, Ducourau Jauregia
Hendaia kalea, 8 - Irun

INFORMAZIOA : Tfnoa. : 943 - 71 80 09

www.mondragon.edu



ENEKO AZKARATE

Sortzen dugun zabor guztiaren ia %30 birziklatzen dugun arren, helburua %50 birziklatzea izan beharko litzatekeela uste dute askok.

Debagoiena da gehien birziklatzen duen Gipuzkoako eskualdea: %28,5

OIHANA ELORZA

Zaborra %17 gehitu da Gipuzkoan azken urteetan. Hala ere, azken urteetan gero eta gehiago birziklatzen dugu. Iaz, 398 kilo zabor egin genuen debagoiendar bakoitzak, eta guztiok sortutako %28,5 birziklatu genuen.

Urtetik urtera zabor gehiago egiten dugu baina birziklatu ere gehiago egiten dugu, eta zabortegietara heltzen den zabor kopurua berdintsua da azken urteetan. Iaz, 472 kilo zabor egin

zituena gipuzkoar bakoitzak, batez beste. Hau da, 1,29 kilo zabor sortu zuen egunean, gutxi gorabehera.

Birziklapen mailak*

Debagoiena:	% 28,5
Txingudi:	% 27,5
San Marcos:	% 26,9
Urola Kosta:	% 19,7
Sasieta:	% 19,4
Tolosaldea:	% 17,1
Urola erdia:	% 16,6
Debarrena:	% 14,9

*Batutako zaborretik zenbat birziklatzen den

PAPERA, GEHIEN

Debagoiengan, 398 kilo zabor egin genuen biztanle bakoitzak 2003an, batez beste, eta sortutako zaborraren %28,5 birziklatu genuen. Debagoiena izan zen gehien birziklatu zuen Gipuzkoako eskualdea.

Gutxien birziklatu zuena, berriz, Debarrena izan zen.

Papera izan zen gehien birziklatu zen zaborra; iaz, 22.500 tona paper birziklatu ziren Gipuzkoan. Horrekin batera, 18.000 tona beira, 7.500 tona kartoi eta ontzi arinen 6.000 tona birziklatu ziren.

Euskararen erabilpena nahi dute zabaldu udal euskaltegiek

Gipuzkoako udal euskaltegiek mintegia egin dute

O.E.

Euren lanbidearekin zerikusia duten gai garrantzizkoak buruz hitz egin dute irailaren hasieran egin duten batzarrean. Gipuzkoako udal euskaltegien barruan, Debagoieneko hiru sartzan dira. Matrikulatzeko epea zabalik dute.

Eskaintzen duten kalitateari eta zerbitzuari buruz jardun zuten, besteak beste, irailaren hasieran, Gipuzkoako udal euskaltegieko ordezkariak.

Zarautzen egin zuten bi eguneko mintegian, ondorioak ere atera zituzten. Garrantzitsuena da jende asko euskaldundu dutela. Hori lortzeko erabili dituzten metodoez ere aritu ziren, eta ondorioztatu zuten euskara irakastea

bezain garrantzitsua dela euskara nola ikas dezaketen erakustea. Honekin batera, eskaintza ikasle beharretara egokitu behar dela ikusi dute; hizkuntza profila lortzeko aukera, esaterako, eta maila horiei lotutako programak eskaintzea. Honela, beharrezkoak ikusten dituzte ordenagailuz eta teknologia berriez hornituriko gelak izatea.

IBARREAN HIRU DAUDE

Gipuzkoako udal euskaltegien barruan, Debagoieneko hiru sartzan dira: Leintz Gatzaga, Eskoriatza eta Aretxabaletakoa; Arrasatekoa, eta Bergarakoa. Oñatin ere badago udal euskaltegia, baina ez dago Gipuzkoako udal euskaltegien barruan. Guztietan zabalik dago ikasturterako matrikulatzeko epea.



GOIENKARIA

Gipuzkoako euskaltegieko arduradunek mintegia egin zuten asteburuan Zarautzen.

CG CONSULTORIO GINECOLOGICO

Talde osoa emakumearen eskura:

- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otolara
- Jose M. Gomez
- Ainhoa Larrea
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- J. Rodriguez
- Mikel Gorostidi
- Nerea Marin

Antzutasuna
Erditzeak
Antisorgailuak
Menopausia
Ekografiak (4D)
Titietako gaixotasunak
Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
Hezur dentsitometria

Arrasateko kontsultategia:
Zerkaosteta 17, behea
Tel.: 943 79 20 18


Policlinica Gipuzkoa

Donostia. Tel.: 943 30 82 08
Eibar. Tel.: 943 12 10 21
Irun. Tel.: 943 61 78 88



ANTZUOLA

Arauk aldatzeko proposamenei alegazioak aurkezteko aukera

Beheko auzoan etxebizitzak egiteko, Sagastin gizarte etxea eraikitzeko eta kiroldegiaren proiektua aurrera eramateko, hainbat arau subsidiario aldatu behar du Udalak.

Aldaketa horiek eta erabiliko dituzten irizpideak jendaurrean jarri dituzte, hil honen bukaera arte.

Hala nahi dutenek irail osoa dute alegazioak aurkeztu ahal izateko. Behin alegazioak aztertu eta arauak aldatzen dituztenean, proiektuak idazteko unea iritsiko da. /AINTZANE IRIZAR



IRATI AGIRREAZALDEGI

BERGARA

Arostegiko arte areto berria Gabonetan zabalduko dute

Hasiera baten San Martin jaietarako zabaltzeko asmoa bazegoen ere, Arostegi jauregiko erakusketa aretoaren inaugurazioak itxaron egin beharko du oraingoz. Iñaki Berasategi, Elisabet Ena eta Xabier Berasategi arkitektoek egindako proiektuari jarraituz egiten dihardute lanak. Hamabost egun barru lanak amaituta izango dira. Erakusketa areto berriak 179 m²-ko azalera izango du eta, esan bezala, arte areto gisa erabiliko da.

Donostian zaharberritzen diharduten Arostegiko XVI. mendeko atea areto barruan egongo da ikusgai. Jauriaren sarreran ate berria jarriko dute. Aroto berria Abdon Juaristi zenaren margo erakusketa batekin zabalduko dute, udazkenean. /EDU MENDIBIL

ARAMAIO

Bañera elkartea desagertu egingo da, arduradunik ezagatik

Hamahiru urteko ibilbidearen ostean, areto futbolaz arduratzen den Bañera elkartea desegin egin behar dute. Kontua hau da: zuzendaritzako bi kideek orain dela sei hilabete iragarri zuten taldearen gidaritza uzteko asmoa zutela. Taldeko kirolari eta entrenatzaileek aurrera jarraitzeko gogoia zutela-eta, deialdia egin zuten ordezkoak aurkitzeko, baina ez da inor agertu. Gauzak horrela, zuzendaritzakoek lehenago hartutako erabakia berretsi eta jakinarazi digute laster desegingo dutela elkartea. /U.M.

ELGETA

Nekazaritza ekologiko ikastaroa antolatu du Maya ingurumen taldeak

Nekazaritza ekologiko ikastaroa egingo da Elgetan irailaren 27tik urriaren 13ra bitartean. Maya ingurumen taldeak antolatu du Ekonekazaritza elkarrearen laguntzaz. Ikastaroa 20 ordukoa da eta honako gaiak landuko dituzte: nekazaritza ekologikoa zer den; lurra; teknikak; negutegiak; izurrite eta gaitzak; eta hazia. Izenemate epea zabalik da dagoeneko. Interesatuak Ekonekazaritza elkarrearen bulegora (943 76 18 00) edo Elgetako udallexera (943 76 80 22) deitu beharko dute. /I.A.

OÑATI

Danborradaren historia kontatuko dute Makalena elkartekoek

Herriko lagun talde batek antolatu zuen lehen danborrada, 1960an. Harrezkero aldaketa asko izan ditu, bitxikeria ugari gertatu dira, eta horietaz guztiez mintzatuko dira Makalena elkartekoak datorren eguaztenean, 19:30ean, kultura etxean.

Lehenengo urteetan, Arrasate eta Legazpiko bandek jotzen zuten nagusien danborradan eta jaietako erregina, damak eta kantinerak aukeratzen zituzten plazako pilotalekuan egiten zuten dantzaldian. 1979an herriko banda hasi zen danborradan jotzen, eta Oñatiko piezak sartu zituen. Danborrada indarra hartzen joan zen urtetik urtera, eta poliki-poliki, hainbat talde eta konpainia sartu dira. 1983an, adibidez, emakumeak sartu ziren, eta urte bat lehenago, umeen lehen danborrada antolatu zuten. Eguraldi txarra egin zuen egun hartan, eta bertan behera gelditu zen.

DESAGERTZEKO ARRISKUAN

Egun, 250 lagun inguruk hartzen dute parte nagusien danborradan, eta 150-ek umeenean. Hala ere, gero eta jende gutxiagok hartzen du parte. Antolatzailuek arazoak izaten dituzte danborradan dantza egiteko prest dauden gazteak aurkitzeko, adibidez.

Parte hartzeko ez ezik, lan egiteko ere ez dago gertatu jendea, eta daudenak nekaten hasi dira. Euren esanetan, jendeak laguntzen eta parte hartzen ez badu, danborrada desagertu egingo da urte gutxi barru. /OIHANA ELORZA

Zertzelada

Jendeak danborradan laguntzen eta parte hartzen ez badu, desagertu egingo da urte gutxi barru

ARRASATE

Bigarren eskuko bizikleten azoka izango da Autorik Gabeko Astean

Hilaren 16tik 21era arte, Autorik Gabeko Astea delata, zenbait ekimen antolatu dituzte Arrasaten. Haien artean, datorren zapatuan, hilak 18, bigarren eskuko bizikleten eta osagarrien azoka txikia egingo dute: Bir-Zikleta. Edozeinek parte hartu ahal izango du. Zera egin behar da: saldu gura den materiala (bizikletak,

kaskoak, puzgailuak...) Arrasateko azoka txikira eraman, bihar, zapatua edo hilaren 14an edo 16an. Materialari prezioa norberak ipini behar dio. Hala, Bir-Zikleta azokan saltzea lortuz gero, Udalekoek dirua emango diote materialaren jabeari. Partikularren materialaz gain, ikasleena ere jasoko dute, eskoletan. /U.M.



ARTXIBOA

Lehenengo aldiz egingo dute bizikleten-eta azoka.

ARETXABALETA

Kurtzebarri mendiko eguna ospatuko dute domekan

Murrukixo Mendizale Elkarrekin dena gertu du Kurtzebarri mendiko eguna ospatzeko. Iaz, mendian gurutzeta jarri zuteneko 75. urteurrena bete zen eta sekulako ospakizunak egin zituzten. Aurtun, egitarau xumeagoa gertatu dute. Edonola ere, eguraldiak lagunduz gero, herritar ugari hurbilduko dira Kurtzebarrira domekan.

Murrukixokoek ez dute irteerarako ordu ofizialik jarri; hortaz, nor bere aldetik igoko da. 11:00etan salda egongo da tontorrean eta 11:30ean meza. /A.L

ESKORIATZA

Hiri Berritze Plana aurrera eramateko lanen berri emango zaie eskoriatzarrei

Hiri Berritze Plana aurrera aterako du Eskoriatzako Udalak. Uztailean, herriko hainbat gunetako bizilagunek euren iritziz bertan egin beharreko lanen eskaerak egin zituzten Udalari. Eskerak ikertu eta zenbait erabaki hartu zituzten; irailean zehar emango diete horien berri bizilagunei. Izartu planetik jasotako diruarekin herriko hainbat gunen biziberrituko ditu Udalak, eta herritarren zenbait eskaera lan horien barruan sartuko ditu. Gainerako lanak inbertsio eta hirigintza barruan sartuko dira. /ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

GATZAGA

Datorren urtera arte agur esan diete gatzagarrek Andramaixei

Otxandiarren bisitarekin amaitu zituzten gatzagarrek eguaztenean Andramaixa jaiak. Dorletako Amaren eguna ospatzera joaten dira urtero bizkaitarrak oinez Gatzagaraino. Lehen aldiz, bi herrien arteko probak egin zituzten, jai giroan betiere.

Jaien balorazio positiboa egin du Jon Sasiain kultura zinegotziak. Asteburuan aste barruan baino jende gehiago ibili zen Gatzagako kaleetan; egubakoitzean kontzertuetan eta zapatuan, umeendako ekimenetan, batez ere. /Z.V.M.

Gutunak

Aceralia eta Bergarako Udala

Denok dakigunez, Aceralia enpresa —edo Bergarako Labe Garaiak deitzen dena— herrian sendo errotutako faktoria bat da aspalditik. Garai baten oso garrantzitsua izan zen gure herriaren bilakaeran. Era berean, aspalditik utzi zion izan zena izateari, enpresa paternalista izateari; hala, gure herritik banandu, eta mundu osoan presentzia duten beste industria talde batzuen barruan sartu zen.

Bergaran askotan komentatzen da enpresa horrek kutsadura handia igortzen duela kanpoaldera. Hego haizea dabilen egunetan kutsadura hori herri-gunera zabaltzen da, eta zer esan Labe Garaietako auzoaren kasuaz: auzo horrek egunero eta debalde jasotzen du kutsadura eta ke kutsatzailea. Batzuetan neurriak hartu behar izaten dituzte auzotarrek: leihoak itxi, arropa batu... Eta kutsadura horrek eragin nabaria du ibilgailuetan eta pertsonengan, alergiak direla, erremina dela...

Kiroldegia inguruan, kutsadura detektatzeko eta neurtzeko aparailu bat dago, baina hori guztiori apaindura besterik ez da; izan ere, ez Ingurumen Sailak, ez Ertzaintzak ez eta Bergarako Udalak ere ez dakite neurketarik egiten ote den, nork egiten dituen, ezta non artxibatzen diren ere.

Maiatzaren erdialdea ezker harremanetan jartzan ahalegindu naiz gure herriko Udalaren arduradunekin, jakiteko ez noiz arte onartu behar duten enpresa horren nagusikeria. Baina gauzak ez dabilta ondo: batzorde bat dagoela kasu horretaz arduratzen ari dena, eta beste argumentu pobre eta oinarri gabekoak, baina nire galdera guztiei erantzun barik.

Esaten didate enpresa horretako arduradun bati deitu diotela sei bat aldiz, baina hura ez dela agertzen hitzorduetara. Nire datuak hartzen dituzte gai horretaz informatuta egon nadin, baina besterik ez; ondorioztatzen da batzorde hori inkompetentea dela. Izan ere, gaur arte ez didate ezer esan gai horretaz. Enpresa horren pikarokeria sekulakoa da: lan eta lan ibiltzen dira gaueko hamarretatik goizeko seiak arte energia aurrezteko, baina, era berean, ordu horietan ilun dagoenez, hodei kutsatzaileak ez dira antzeman ere egiten.

Abuztua hilabete historikoa izan da, aldeko klimatologia eta hego haizea egun askotan; bada, horrek ekarri du kutsadura Bergara osoan nabarmen zabaldu dela. Lanean ibili dira 24 orduz, energia aurrezteko, baina ordu horietan guztietan kutsadura ikaragarria igortzen ibili dira, eta inolako kontrol barik.

Abuztuaren 16an udaletxera deitu nuen, beste behin. Ez zegoen udal arduradunik, baina justifikatze aldera, esan

zidaten Udalak geratu egin dituela enpresa hori egiten ari zen hobekuntza obra batzuk. Baina, hara, ez zuten baimenik ere eskatu obra horiek egiteko. Lotsagarria.

Agintari nagusien gaitasunik eza ikusita, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen zuzendaritzara jo nuen; esan zidaten idatzi bat eta argazki batzuk bidaltzeko, eta ikusiko zutela ezer egin daitekeen. Ertzaintzak esan zidan gai hori ez dela euren eskuduntza, ez dagoela euren esku, eta patruila bat bidaliko zutela, besterik ez, eta gai hori Bergarako Udalar dagokiola. Ondorio bezala, eta Bergarako bizilagun bat naizen aldetik, salatu egin nahi dut gure Udalaren utzikeria, sentiberatasun falta eta erabateko gaitasunik eza. Ez dituzte erantzuten herritarren kezak, baime-nik gabeko obrak egiten uzten dute; izan ere, horren harira, obrak baimenik gabe egiten ari zirela jakin zuten kasualitate hutsez, istripu bat gertatu zelako. Saiatzen dira tasarik ez ordaintzen, nahiz eta jakin derrigorrezkoa dela ordaintzea. Eta, bien bitartean, enpresarekin negoziatzen saiatzen dira, ez dakigu zeren truke, gune bat edukitzea etorkizunean garabi bat jartzeko.

Penagarria; izan ere, etorkizun ez oso urrunean, litekeena da manifestazioak eta protestak egitea gure mandatarari nagusien inoperantzia dela eta, eta haiek segitzen dute herritarren eskaera eta galderari erantzun gabe.

FELIX MAIZTEGI ZUBIAURRE
Bergara

Bergarako Aceraliara lan eske doazenei

Bergarako Aceralian lan egiteko asmorekin dabilen edonorendako, LABeko sail sindikalak jakin izan duenez, beste galderen artean, honako hauek ere egiten dituzte enpresako ordezkariak elkarrizketatuak izateko deituak izaten direnei: “Ze iritzi duzu Beasain-Durango Autobideari buruz?; Ze egunkari irakurtzen duzu?; Ze iritzi duzu zure herriko alkateari buruz?; Ze iritzi duzu euskal gatazkari buruz?...”.

LABeko sail sindikalak behin eta berriz deitoratu dugu enpresa honen kontratazio politika: baztertzalea ezker abertzalearekiko, eta laguntzaile eta bultzatzaile oposiziorik egiten ez dutenekiko.

Beraz, Bergarako Aceralian lan egiteko asmorik baduzue eta ezkertiar eta abertzale bazarete, argi ibili eta pentsatzen duzuen kontrakoa erantzun beharko duzue entrebistan.

LAB SINDIKATUA
Bergara

Euskaraz ikasteko eskubidea!

Ezagutzen genuen lehendik UPNren gobernu faxistak euskararekiko eta ikasleon eskubideekiko duen begirune eza eta jarrera autoritarioa. Urteak daramatzagun nafar gobernuaren gehiegikeriak salatzen (hizkuntz dekretuak, UPNAko egoera, erdarari ematen dioten garrantzia...). Elkartasun osoa adierazi nahi diegu euren eskubideen alde lanean ari diren Sakanako ikasleei. Elkartasun eta sostengu osoa, tamalgarrira delako oraindik ere gure herrian euskara aldarrikatzen aritu beharra. Jakin dezatela Euskal Herriko ikasle gehien-goak bat egiten duela beraien eskaerakin; izan ere, uzta oparora daramagu euskalduntzearen aldeko borrokan.

Salatu nahi dugu UPNren lotsagabekeria, esanez kalitateak garrantzia gehiago duela hizkuntza baino. Nola esan dezakete hori? Nola hitz egin dezakete horrela Nafarroan, non euskararen aurkako erasoak eguneroko ogia diren? Nola hitz egin dezakete kalitateaz, ez bazaio ikasle bati uzten bere hizkuntza ikastea?

Denborak utziko du bakoitza bere lekuan. Guk Ikasle Eskubideon alde borrokatuko dugu, gure eskubideen aurkako erasoak salatuko ditu eta Ikasle Abertzaleak-ek gisa horretako borroka eta aldarrikapenak sustengatzen jarraituko du. Guk historia idatziko dugu, eta UPN historia izango da.

IKASLE ABERTZALEAK
Debagoiena

OJDk ikuskatzen du GOIENKARIA

OJD erakundea GOIENKARIA ikuskatzen hasi da. OJDren arabera, GOIENKARIAk batez beste 18.228 aleko tirada eta 18.185 aleko difusioa dauka.

OJD erakundeak idatzizko eta Interneteko hedabideen tirada eta difusioa zenbatu eta kontrolatzen ditu. Gaur egun, 835 idatzizko hedabideren tirada (inprimatzen diren aleak) eta difusioa (benetan saldu edo banatzen direnak) kontrolatzen ditu erakunde honek. Horretaz gain, 134 hedabide elektronikoren trafikoa (ikusitako orriak eta bisitak) ere kontrolatzen du.

Batik bat iragarle, publizitate agentzia edota editoreen artean hedabideen tirada, difusioa eta banaketaren gaineko informazioa zabaltzea da OJD erakundearen egin beharra.

GOIENKARIA da OJD erakundeak ikuskatzen duen lehenengo euskarazko tokiko aldizkaria.

GOIENKARIA

Hemeroteka

Junkera molatxen mazo

Ostiralean albiste bi zetozen egunkarrietan Kepa Junkeraren gainean: bategatik, Grammy latinoetan folk ataleko saria eman ziotelako; bestetik, Nafarroa Oinezeko aurtengo doinua egin duelako.

Bi albiste horiek ederki laburbiltzen dute Kepa Junkeraren egungo irudia: jator, guay, etxe eta kanpo zerbitzen dakienarena... Euskañolari buruz esan genuen bezala, Junkera molatxen mazo. Hizkuntzaren aldetik, berriz, Junkera ez da iristen euskañola egitera ere, erdara hutsekoa baita bere jarduna. Orain ez dakit baina garai batean (trikiti munduan mugitzen zenean), presio gehiago izaten zuten, ea zergatik ez zuen euskara ikasten-eta. Kepak, berriz, beti eduki zuen garbi bera musika zela eta musika axola zitzaiola, euskara-eta begi onez ikusi arren.

Inguruko presioari amore eman gabe nork bere printzipio eta lehentasunei eustea gauza txalogarria iruditzen zait bizi-tzan, eta are gehiago edozein artetan. Hor-taz, argi gera bedi Junkerak eskubide osoa duela euskara ez ikasteko, baina baita nik ere Kepa Junkera euskal musikaritzat ez jotzeko. Berak egiten duena euskal musika den edo ez den, berriz, interesatzen ez zaidan eztabaida da.

XABIER MENDIGUREN ELIZEGI
Sustatu.com (2004/09/09)

Junkera ez da euskaduna

Junkera erdalduna da. Gaztelaniaz egiten du (berba, baina musikan ez du kantatzen). Ez dakit horrek artista hispanotzat katalogatzeko balio duen. Artista hispanoak dira Donostiara datozen iraileko super-izarrak: Silvio Rogriguez eta Bisbal.

LUIS FERNANDEZ
Sustatu.com (2004/09/02)

Estralurtarren herrian

Junkera zoriondu nahi dut hemen, haren lan bikainagatik. Eta, bidenabar, gure herrian arrunta bezain tristea den gertakari bat jakinarazteko beharra sentitu dut: *El Correo*-ren edizio digitalak sariketaren berri ematen du, bai, Sanz gora eta Sanz behera, Bebo Valdés, Paulina Rubio..., baina artista bizkaitarra aipatu ere ez du egiten! Batzuetan irudipena dut estralurtarren artean bizi garela, baina ezin asma dezaket nor den hemen estralurtarra: *El Correo*-koak ote? Junkera ote? Euskal musikariak ote? Edo euskal kultura, oro har?

JAKUE GOIENETXE
Sustatu.com (2004/09/03)

Goienkaria
DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkoroberebar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezibar, Arantazu Arana
SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga, Natali Martínez,
Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín,
Imanol Elortza, Amaia Mundiñano
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

Iñaki Uria *Euskaldunon Egunkaria* itxi zuten egunean atxilotu zuten. Ia 18 hilabete egin ditu Aranjuezko espetxean *Egunkaria auzian* inputatuta. 450.000 euroko bermea ordaindu ondoren, abuztuaren 2an utzi zuten aske.

OIHANA ELORZA

Nola pasa duzu azken hilabetea?

Hara eta hona, oraindik lur hartu gabe, nolabait. Jendea oporretan egon da tarte horretan eta orain, oporretatik datozen ahala, lagunak agurtzen nabil.

Bilerak eta elkarrizketa asko ere egin dituzu. Gure elkarrizketa azkena izango da, akaso.

Ez, ez pentsa. Batzuk egin ditut, bai, baina beste elkarrizketa bat prestatzen harrapatu nauzu.

Lagunak heldu baino lehen atera zinen espetxetik.

Bai, anekdota hutsa da hori. Zarauttik autobusean heldu ziren lagunak ni atera ondoren iritsi ziren, baina beste lagun batzuk espetxe atarian nituen besarkatzeko zain.

Momentu horiek bizitzan behin bizitzen dira eta poza handia izaten da. Denbora luzean ondoan izan ez dituzun lagunak eta senideak besarkatzeko aukera duzu eta hori izugarria da.

Espetxeek, beste gauza batzuen artean, eta euskaldunekin gero eta gehiago, lagunekiko komunikazioa eten nahi dute. Zentzu guztietan, gainera; gutunekin, telefono deiekin, bisitak murrizten, lagun kopuruak ere murriztu egin dituzte azkenaldian... Bestetik, ikusten dituzun lagunak ere kristal batetik ikusten dituzu. Beraz, lagunak ondoan ikusten dituzunean, poza sekulakoa da.

Barruan ere egin zenituen lagunak.

Bai, eta baten batzuk hau ezin dela esan uste duten arren, jende ona ezagutu dut espetxean: lagun onak, burutsuak, adimentsuak... Prentsak eta komunikabideek *munstroak* bagina bezala aurkezten gaituzte, baina ez da horrela.

Zu zein egoeratan egon zinen?

Aranjuezen egon naiz ni. Espetxe horretan bost modulutan daude euskaldunak eta nik hiru ezagutu ditut; lauzpabost hilean behin aldatzen gintuzten moduluz. Espetxea bera da, baina moduluak ezberdinak dira eta jende ezberdina dago bakoitzean. 120 preso arrunten artean, euskaldunok hiru eta sei bitartean izaten ginen.

Urtebetetik hona, zenbait gauza murrizten, gogortzen ari dira Aranjuezen. Adibidez, kiroldegira joateko aukera kendu egin ziguten, arratsalde ziegan estuzko aukera ere kendu egin ziguten UNEDen matrikulatuta ez baldin bazeuden, eta lagun zerranda hamarrera murriztu ziguten.

Euskaldun preso bat kalera ateratzen denean, normalean, espetxean uzten ditu bere gauzak, beste euskaldun preso batek erabil ditzan. Baina gauzek, telebistek esaterako, espetxean bertan erosiak izan behar dute eta bere izenean egon behar dute paperek. Beraz, etengabe egiten dituzten miaketetan, kendu egin dituzte gauzak. Niri, bi telebista eta irrati-kasetea kendu zizkidaten, ez nituelako espetxean erosi. Flexoa ere kendu zidaten. Ziegan, askotan, bi lagun egoten ginen eta argia alde batean dago bakarrik, leihorik ez dagoen aldean. Iluntzen duenean, ezin duzu ezer irakurri eta flexoa behar duzu. Flexoa sar-



ARGAZKI PRESS

Iñaki Uria

'EUSKALDUNON EGUNKARIA'-KO KONTSEILARI ORDEZKARIA

“Orain arteko prozesua injustua izan da, eta ezin dugu pentsatu epaiketa justua izango denik”

'EGUNKARIA AUZIA'

“Autoak bai, baina ez frogarik ez akusaziorik ez du oraindik epaileak. Orain, likidazioa egiten ari dira; hainbeste herritarren lana desegin dute”

HERRITARREN ETA ERAKUNDEEN BABESA

“Injustiziak denok ikusten ditugu, egunero, baina kontua da bakoitzak nola jokatzeko eta nola jokatu ahal duen. Babesak aurrera jarraitu behar du”

tzeko baimena behar duzu, eta ez dizute baimenik ematen.

Gauzak murrizten zizkiduten, euskalduna zarelako?

Beti janzten ditu horrelako erantzunak espetxeak, baina argi dago gauza horiek guztiak euskaldunekin egiten dituztela bereziki.

Espetxetik atera zinenean, kalean bai baina aske ez zeundela esan zenuen.

Bai, sentimendu baten espresioa zen hori. Zu espetxera eramaten zaituzten

legediak, itun antiterroristak, Audientzia Nazionalak eta epaitegi berezi guztiek indarrean jarraitzen dute eta edozein egunetan berdin-berdin joka dezakete. Horrek, nik uste, libre ez gaudela adierazten digu, ez pertsona ez herri bezala.

Sozialistekin badirudi gauzak xamurragoak daudela eta egia da, xamurragoak daude, baina nork daki bihar edo etzi nola egongo diren? Eta horren aurrean, zein aukera, babes, dugu euskaldunok? Estatua herritarrek beren burua defendatzeko

ko asmatu duten erakundea da. Euskaldunok ez dugu estatutik, beste estatu batean gaude eta horrek *beste* batzuk bezala tratatzen gaitu, arrotzak bezala, ez herritar bezala.

ETArekin lotura zuelako itxi zuten Euskaldunon Egunkaria Juan Del Olmo epaileak. Autoak bai, baina frogarik ez du oraindik erakutsi, eta, hala ere, Egunkaria-k itxita jarraitu behar duela esan du beti.

Ez frogak bakarrik, akusazioa ere formalizatu gabe dago oraindik. Gauza bat da egin dituen autoetan zer esan duen eta zer arrazoi arraro erabili dituen eta beste bat akusazioa bera da, eta oraindik ez du formalizatu. Berez, alderantziz behar luke izan guztiak: frogak bilatu lehenengo eta akusatu ondoren. Hemen, aldiz, enpresa bat itxi dute lehenengo, jendea langabezia utzi eta gero enpresako paper guztiak hartu ea akusazio bat osatzen duten ikusteko. Epaileak egingo du zer bait, ziur, baina oraindik ez dago ezer.

Une honetan, zein puntutan dago Egunkaria auzia?

Epailearen aginduz, likidazio prozesuan dago. Zor duenak eta hartzeko duenak euren kontuak konponduko dituzte eta *Egunkaria* deuseztatu egingo da. Hainbeste herritarren artean egindako lana desegin egingo dela esan nahi du horrek.

Prozesua ordenatu samar eta txukun egiteko, inputatu batzuek egitea eskatu zuten, eta horretan dabilta.

Luze joango den auzia dirudi.

Luze edo motz joango den garrantzitsua da, baina inportanteagoa da nork eta non egingo den epaiketa: Auzitegi Nazionalan. Instrukzioa han egiten da, epaiketa han egiten da, espetxe bigilantzia ere auzitegian egiten da martxotik aurrera, beraz, zirkuitu itxi bat sortu dute euskaldunak estutzeko.

Orain arteko prozesu osoa injustua izan da, eta ezin dugu pentsatu epaiketa justua izango denik. Beraiek egin dutena justifikatu egin behar dute, baina ez dut uste oker ibili direla esanaz justifikatuko dutenik. Nork uste du hori? Beraz, ezin daiteke esan “epaiketan ikusiko dugu”.

Jendetza joan zen Euskaldunon Egunkaria-ren itxieraren aurkako manifestaziora. Martin Ugalde parkean egin zizuten ongiatorrira ere denetarikoa joan ziren.

Injustizia ikusi ikusten da, baina kontua da bakoitzak nola jokatzeko eta nola jokatu ahal duen. Txetxenian, Iraken eta Euskal Herrian ikusten ditugu injustiziak egunero.

Eskertzekoa da, duda barik, *Egunkaria*-k jaso duen babesa, herritarren zein erakundeen babesa. Horrek aurrera jarraitu behar du orain, etorriko direlako momentu gogorak.


Espetxean zaudela jaio da Berria. Nolako iruditzen zaizu?

Oso ona. *Egunkaria* ona zen eta hau hobe izan liteke. Ezberdinak dira biak. Kritikak ere badituzte, baina dagokienei egingo dizkiet horiek. (Barre).

Non jarraituko duzu lanean henedik aurrera? Zein proiektutan?

Egia esan, oraindik konkretatu gabe daukat. Komunikabideen inguruan egingo dudala uste dut, hori bai, eta agian ez horretan bakarrik, baina ez dakit zehazki non sartuko naizen. Oraindik, hala ere, lasai ibiltzea komeni zaidala uste dut. Gainera, likidazioarekin, defentsarekin eta beste arazo batzuekin ibiliko gara hilabete batzuetan.

Atzera begia jarri gaituzte auzi honekin. Ez gara konturatzen, baina komunikabideetako proiektuetan lanean zebilen lantalde osoak bere buruaren defentsan hasi behar du lanean orain, proiektu eta asmo berrietan lana egin ordez.



Fase akademikoak ikasturte osoa iraungo du. 520 ordu izango ditu ikastaroak; 300 ordu presentzialak izango dira, eta 220 osagarriak.

HUHEZIK Kirol Masterra jarriko du abian, profesionalak prestatzeko

Master horretan izena emateko epea irailaren 24an amaituko da

GOIENKARIA

Mondragon Unibertsitateak kirol erakundeak eta ekintzak kudeatzen irakasteko Masterra jarri du abian. Urriaren 4an hasiko dituzte klaseak, MUren Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, Eskoriatzan.

Egun, gorputz eta kirol ekintzek gero eta garrantzi handiagoa dute. Aisialdiaren kulturaren garapenak eta sortzen dabilen behar eta eskaerak eskatzen dute gorputz eta kirol ekintzak kudeatzen dituzten erakunde eta pertsonak profesionalizatzea. Eta, eskaera horri erantzun guran sortu dute HUHEZIK eta Athlon kirol erakundeak Kirol Masterra, oso garbi ikusten dutelako gure gizarteak profesionalak eskatzen dituela, kirola kudeatzeko. Profesionalak, kontuan hartuko dituztenak kirol instalazioek eta bertako ekintzek zer inplikazio dituzten, eta zein eragin duten gizartearen.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak gura du master hau

bukatzen duen ikasleak honako ezaugarri hauek izatea: jantzita egotea kirolaren eta gorputz ekintzen gaineko jakintzan, ondo ezagutzea kirol esparrua eta izatea horren ikuspegi estrategikoa, jakitea nola kudeatu kirol erakunde bat, gai izatea aplikatzeko jakintza horiek kirol esparruan eta gauza izatea taldeak gidatu, sortu eta dinamizatzeko.

METODOLOGIA

Kirol Master horretan ikaslea izango da bere ikasketak eta garapenaren ardatz eta protagonista. Horretarako teoria landuko du eta kirola nola kudeatu, praktikak egin, simulazio ariketak, eztabaidak, kasuak aztertu eta *on line* tresnak erabiliko

ditu: foroak, ariketak eta barne komunikazioa, besteak beste.

Jakintzari dagokionez, hiru arlo nagusi landuko ditu master horrek: kirol sistemaren azterketa, kirol kudeaketa eta zuzendaritza, eta garapen pertsonal eta profesionala. Jakintza arlo bakoitzak oso helburu eta eduki zehatzak izango ditu.

IKASTURTE OSOA

Programaren fase akademikoak ikasturte osoa iraungo du, urriari hasi eta ekainean amaitu. Guztira 520 ordu izango ditu ikastaroak; horietatik 300 izango dira ordu presentzialak eta gainerakoak, osagarriak. Fase teorikoa amaituta, ikasleak Master Amaierako Proiektua egin

beharko du, eta abenduan bukatu eta aurkeztu, unibertsitateko tribunalaren aurrean.

NORI DAGO ZUZENDUTA?

Masterra kirolaren kudeaketan interesaturik dauden goi mailako unibertsitate tituludunek egin dezakete, bai gorputz eta kirol ekintzen arloko tituludunek, bai eta beste zenbait arlokoek ere: Zuzenbidea, Enpresa Zientziak, Enpresa Humanitateak, Psikologia, Soziologia, Ingeniaritzak... Horiez gain, baina, kirol kudeaketan esperientzia zabala dutenek ere egin dezakete masterra, nahiz eta goi mailako titulu akademikorik ez izan.

IZENA EMATEKO

Aurre-matrikula egiteko epea irekita dago, irailaren 24a arte. Kirol Masterra egiteko izena eman gura duenak telefonoz dei dezake HUHEZIKira, 943 71 41 57 zenbakira, edo mezu bat bidali sarrera@huhezi.edu helbide elektronikora. Jakin baita ere, Kirol Masterraren gaineko informazio gehiago www.huhezi.edu webgunean daukazuela.

Egungo beharrek eskatzen dute gorputz eta kirol ekintzak kudeatzen dituzten erakunde eta pertsonak profesionalizatzea

Helburua da ikasleak kirol esparrua ezagutzea, erakunde bat kudeatzeko gauza izatea, eta kirol taldeak sortu eta gidatzea

Kirolabur

ERRUGBIA/ARRASATEARREN GONBITEA

Aurten, Arrasate bi talde izango ditu senior mailan. Lehenak Estatuako Lehen Mailan jokatu du, eta bigarrenak Gipuzkoako Probintzial Mailan. Eta, bigarren taldean jokatzeko jokalariek behar ditu Arrasatek.

Maila hori oso aproposa da errugbian jokatzeko hasi gura duenarentako; horrenbestez, interesa duzuenok jakin, Arrasate Errugbi Taldeko mutilek martitzen eta eguenean entrenatzen dutela Arrasateko Musakolako Kiroldegian.

TXIRRINDULARITZA/MARKEL IRIZAR

Leherro hauek idatzi ditugunerako, Etorkizuneko Tourreko zortzigarren etapa hastear zegoen. Aurreko zazpi etapetan, ziklista oñatiarrak lan txukuna egin du. Zazpigarren etapa amaituta, oñatiarra 35. postuan zegoen sailkapen orokorrean.

Markel Irizarrek orrialde honetan esan zuen joan den astean taldeak lan txukuna egin dezakeela, baina bera ez dagoela sasoi onean. Hala ere, orain arte gogotsu dabilera erakutsi du. Bihar amaituko da Etorkizuneko Tourra, Le Grand-Bornand-en.

TXIRRINDULARITZA/UNAI ARANTZABAL

Sumofic-Lokatza taldeko Unai Arantzabalek maila Sezin hobia erakutsi zuen joan den domekan Lierniko proban. 60 kilometroko lasterketan gazte mailako ziklista bergararra bigarren helmugaratu zen, eta lau kilometroko erlojupekoan azkarrena izan zen. Bi lasterketan egindako lanari esker, Unai Arantzabal lehena izan zen sailkapen orokorrean.

Domekakoarekin, Unai Arantzabal txirrindulari bergararra lau proba irabazi ditu aurten.

FUTBOLA/LARRAITZ KORTABARRIA

Larraitz Kortabarrira arrasatearrak Bartzelona Futbol Taldean jokatu du. Aurre-denboraldia eurekin egin eta gero, Bartzelona taldeak arrasatearra fitxatzea erabaki du. Larraitzek, baina, oraindik ez daki lehenengo taldean edo bigarren taldean jokatu duen.

Larraitz Kortabarrira joan den urtera arte Mondran ibili da. Aurreko denboraldian Athletic ibili zen bere atzetik, baina, azkeneko momentuan atzera egin zuten, eta arrasatearrak Eibarren egin du joan den denboraldia.

FUTBOLA/DERBIA DOMEKAN

Domekan, 16:30ean, Mondrak eta Bergarak denboraldiko lehen derbia jokatu dute.

Denboraldiko lehen norgehiagokan biek hala biek ez zuten gura zuten moduko emaitza lortu, eta oraingo domekan ahaleginduko dira joan den astean egin ez zutena egiten: irabazten. Mondra 10. postuan dago, eta Bergara 14.a da. Ibarreko bi taldeek hori baino gorago egoteko helburua dute. Hortaz, domekako norgehiagoka ikusgarria aurreikusten da.





RENAULT SERVICIOS

carrocería rápida

ARTE ABSTRAKTUA MUSEOETAN DAGO ONDO, EZ ZURE AUTOAN.
CARROCEÍA RÁPIDA: KONPONKETAK 24 ORDUEN BARRUAN.

Urradurek, kolpe txikiak, kristal, argi nahiz atzerako ispilu apurtuek ez dute ongi ematen zure autoaren karrozerian. Horregatik, guk 24 orduen barruan konpontzen ditugu, alde zuzeneko hitzordu barik eta unean bertan egindako aurrekontuarekin, idatziz eta konpromiso barik. Eta hala ez bada, ordeko ibilgailu bat doan.

Renault Servicios. Gelditu ez zaitzen mugitzen gara.

Buruan baduzu, hemen duzu. www.renault.es

XV Juegos Mediterráneos Almería 2005


Pieza de Origen Renault
Espíritu Renault

RENAULT recomienda eif

**RENAULT
AUTOBERRI**

San Andrés auzoa, 8 • Tel. 943 71 24 72 • ARRASATE

æek euskaltegiak



**EUSKARA
IKASTAROAK
2004-2005**

Maila guztiak /
EGA eta ALFABETATZE
Matrikula epea:
irailak 24



æek

**Informazio eta
matrikula:**

ERDU AEK EUSKALTEGIA
Garibai 14, 3. ARRASATE.
Tel.: 943 77 03 69
arrasate@aeknet.net

AKULU AEK EUSKALTEGIA
Masterreka 13, behe. BERGARA
Tel.: 943 76 05 18
bergara@aeknet.net

grupo amuebladora mondragonesa



BERRITZE LANENGATIK

- Altzariak
- Sofak
- Lanparak
- Edredoiak
- Alfonbrak
- Eta abar

%50
arte

a, eme: interiores
Zerkaosteta, 3. ARRASATE
■ Tel.: 943 79 15 03
■ Faxe.: 943 79 14 89



www.grupo-aeme.com grupoam@grupo-aeme.com

Goienka2a

Egubakoitza / 2004ko irailaren 10a

Kultura
eta
aisialdia



Irailaren
10etik 17ra

BILDUMAK BARRA-BARRA!

Zaletasun bakoitzarendako bat

ORAIN DA SASOIA

Egunero sei desberdin jasotzen dihardute Debagoieneko saltokiek abuztu bukaeran hasi eta irail osoan; gero, gehiago jasoko dituzte

ARRAKASTAREN GILTZA

Lehenengo zenbakiek oso prezio baxua dute, horregatik zaila da tentazioari eustea. Baina gero, jende gutxi jarraitzen ditu bildumok

JENDEAREN GOGOKOENAK

Umeendako bildumak beti saltzen dira ondo: jostailuak, marrazki bizidunen DVDak... Autoekin zerikusia dutenak ere askok gogoko dituzte, eta horiek, gehienetan, zenbaki guztiak erosten dituzte /14

Oferta de lanzamiento 0,95 €

OFERTA DE LANZAMIENTO

2 PELÍCULAS
6,95
EUROS

Ahora en **DVD**
VIDEO

J. Benítez
planeta encantado
UN VIAJE CONFIDENCIAL CON J. J. BENÍTEZ

J. Benítez
planeta encantado
Trido por los grandes enigmas
de la Tierra con J. J. BENÍTEZ

PRIMERA ENTREGA:
los misterios
del Perú milenario

J. J. Benítez
planeta encantado
UN VIAJE CONFIDENCIAL CON J. J. BENÍTEZ

OPORTA DE LANZAMIENTO
2,99 €

PASCUA: ¿QUÉ SIGNIFICAN
LOS MOAIS?

ARGELIA: ¿PINTURAS
DE ASTRONAUTAS?

Nº 1 Fascículo +
Ficha +
Modelo Bedford 1939
por sólo
3,95 €

Minifiguras
profesionales
con todo lujo
de detalles.

Documentación
elaborada
por verdaderos
expertos

DA SEMANA
SU QUIOSCO
ediciones
del radio

DVD
Cuentos
de Siempre
Cuentos de Siempre
una y mil veces con las historias
más entrañables y divertidas

LOS 3 CERDITOS, ALA
LA SIRENITA, EL FLAUTISTA
SIMBAD EL MARINERO

1ª entrega
PINOCHO

ZALETASUNAK/ DEBAGOIENKO SALTOKIETAN, BILDUMEK SEKULAKO ARRAKASTA DUTE

Irailean, perretxikoak eta bildumak


SASOI HONETAN, ARGITALETXEEK EHUNKA BILDUMA MOTA DESBERDIN ATERATZEN DITUZTE, OSO PREZIO BAXUAN

LEIRE KORTABARRIA

Gustu edo zaletasun bakoitzarendako bat: jende guztiak aurkituko du gogokoren bat uda bukaeran eskudakada agertzen diren bildumen artean. Izan ere, urtetik urtera gero eta aukera desberdin gehiago dago, eta prezioak ez du kompetentziarik, lehenengo zenbakian behintzat.

Jendea oportoretatik bueltan gogoberrituta datorrelako, ikasturte berria proiektu berriekin bat hasi nahi delako... arrazoi jakinik ez dago, baina kontua da abuztu bukaera partean inoiz baino aukera zabalagoa dagoela zaletasun bati ekiteko: bilduma bat egiten hastea. Debagoiendarrok ere bai, jakina: ibar osoko estanko, paper denda zein kiosko guztiak ehunka eta ez da gehiegikeria, benetako kopurua baiziki jasotzen dituzte bildumon lehenengo zenbakiak. "Udalak debekatu du salgaiak kalean ipintzea, baina, jasotzen ditugun guztiokin, non jarriko ditugu, bada, bestela?", dio, umore onez, Arrasateko Balantzategi kiosko Rosak.

Saltokiotan pilatzen dira, bata bestearen ganean batzutan, denetarik bildumen lehen zenbakiak. Zerrenda bukaezina da: mineralak, Edurne Zuriren etxetxo egiteko piezak (pertsoneiak eurak barne), hamaika jardura egiten ikasteko faszikuluak, mahai-tresnak, karta-sortak... eta DVD eta liburu bilduma piloa, gehienetan oso espezializatuak: nobela erromantikoa, egile jakin baten lan sorta osoa, emakumei zuzendutako nobelak, beldurrezkoak; edo



LEIRE KORTABARRIA

Hainbatek, euretako baino gehiago, bateren bati opari egiteko erosten dituzte bildumon lehenengo zenbakiak.

zinema klasikoak, dokumentalak, marrazki bizidunetakoak...

LIBURUAK ETA FILMAK, ARRAKASTATSU
Bildumen kontua ez da berria, baina eskaintza areagotuz doa urtetik urtera; saltzaileek diotenez, 200 bilduma inguru izango dira, guztiak jasotzen dituztenean. Horiendako guztiendako eroslerik egongo ez dela dirudi... baina guztiz kontrakoa da. Salbuespenak dira, hain zuzen, saltzen ez direnak.

Barietatea oso zabala da, bai; baina benetako imana da prezioa. Izan ere, debagoiendarrok bildumon lehenengo zenbakiaren tirada agortu egiten dugu; beharbada, baita bigarrenarena ere... horiek datozelako oso prezio merkean. Izan ere, ez da sarritan gertatuko Isabel Allende edo Jose Saramago bezalako idazle arrakastatsuen bi nobela 6,95 eurotan erosi ahal izatea; edo *Moulin Rouge* eta *Braveheart* filmen DVDak, biak, 15 euro baino gutxiagora. Oro har, liburu-

ruen, CDen edo DVDen etxeko txokoa zertxobait janzteko aukera bikaina dela ezin ukatu!

Opariak egiteko ere jotzen du jendeak bildumetara. Arrasaten, Sabine 3 urteko mutikoarendako erosi zuen Ferrari autoaren miniatura, 4,95 eurotara.

"GUZTIAK SALTZEN DIRA"

Joan den martitzenean, sei bilduma berri jaso zituzten saltoki batzuek. Horien artean, besteak beste, *Tintin* komiki heroia-

abenturen bilduma zegoen. Ziur hori ere saldu egingo dela. "Flamenko estiloko abeslarien bilduma jaso dugu aurten, eta pentsatzen genuen ez genuela salduko, baina bai, hori ere saldu da", diosku Arrasateko Rosak. Bergarako Amaiak eta Kontxik ere jaso dute ezustekorik: "Titanic itsasontzia muntatzeko bilduma ateratu zuten iaz, eta pazientzia handiz hartu beharrekoa da; baina saldu egin zen".

Hirugarren zenbakitik aurrera, normalean prezioa igo egiten da, eta orduan ez dira hainbeste saltzen. Baina badaude bildumagile oso leialak ere. Izan ere, gurean, arrakastari dagokionez, txapeldun argi bat dago: autoen miniaturen, edo autoak muntatzeko piezen bildumak. Berritasunak berritasun, autoen bildumak urtero daude aukeran. "Badugu bezero bat halako bost bilduma egiten diharduena, eta hasieratik bukaerara egiten ditu, gainera", dio Rosak.

Inork horietako bilduma bat baino gehiago eta guzti egiten du batera. Saltzaileek eskatu ohi dute, inork interesa badu bilduma osatzeko, esan diezaietela. Ehunetik gora bildumetatik, 20-30 batek erosle finkoa aurkitzen dute; ez da marka txarra. Autoez gain, jendea *engantxatzea* lortu duten beste batzuk dira marrazki bizidun zaharrenak: *Dragoi Bola*, *Heidi*, *Pippi Kaltzaluze*, *Marco*, *Maya erlea*, *Banner eta Flapi*... eta, oro har, joan diren hamarkadotako telesailen DVDak ondo saltzen dira. Izan ere, zaletasunaz gain, *revival*-erako aukera ere eskaintzen dute bildumok.

Merkatu tentagarria

Bildumon merkatua zabaltzen joan den neurrian, sofistikatzeko eta aberasten ere joan da. Hasiera baten, paperezko faszikuluak ziren protagonistak; gero, VHS zintak edo kaseteak. Eta guztiok gogoan ditugu klasiko bihurtu diren hizkuntza-ikastaroak ere. Orain, horiei lekukoa hartu diete disko konpaktu eta DVD moderno eta erakargarriak. Horrez gain, gai-sorta ere izugarri zabaltzen eta espezializatu da, eta adin eta izaera bakoitzarendako bilduma bat aurki daiteke. Bildumon lehenengo zenbakia erostea tentazio handia izan daiteke, izan ere, aurkezpen-eskaintza bezala, ohiko prezioaren erdi edo herenera erosi daitezke denetarik kapritxoak, eta batzutan, opari eta guzti datoz.

Estatuan, bildumen merkatuaren zatirik handiena bi argitaletxe handik hartzen dute; baina hain merkatu zabala bilakatu denez, azken aldian, beste sektore batzuek ere esku hartzen hasi dira: egunkari ezagun batek baino gehiagok liburu edo film bildumak eskaintzen ditu, horiek ere, prezio baxuan.

Denboraldiko 'best seller'-ak eta porrotak


Estankoetako ugazabek dioskutenez, bildumak hauen arrakasta lehenengo bi zenbakia, bederen-erabatekoa da. Baina, guztian bezala, salbuespenak ere badaude: "Guztiak saltzen dira, baina inork eskatzen dituenak ere baditugu", esaten digu Amaiak, Bergarako Zangitu estankokoak. Bai hor, bai eta ibarreko beste saltoki gehienetan, denboraldi berriko porrot handiena, orain arte, berbera da: RBA argitaletxeak ateratu duen cava botila txapen bilduma. Txapa historikoak ia 2 eurotan salgai izan arren, inork ez ditu nahi izan. Hala ere, gustuak lekuen arabera ere badoaz, batzutan: Arrasateko kiosko bateko bezero katalan

bategi komentatu zien saltzaileei Katalunian "ondo salduko zela" bilduma hori.

Normalena da, oso bitxia edo espezializatu izan arren, bilduma guztiak erosle izatea. Bildumok ez daramate epe luzea saltokietan, aurten; hala ere, orain

arteko *best seller*-ak zeintzuk diren argi dute saltzaileek: "Haizemaileen eta buru-argitasun jokoen bildumak bikain saldu dira", diosku Susanak, Arrasateko paper denda bateko arduradunak. Beste leku askotan ere, horiek dira, oraingoz, erosleek gogokoenak.

Denboraldiko beste arrakasta handi bat izaten ari da Felix Rodriguez de la Fuente naturazalearen gaineko DVD eta faszikulu bilduma.



PERTSONAIK / 'GOIENKARIA-'K VIENAN EZAGUTUTAKO MUSIKARIAREKIN ELKARRIZKETA

JORGE ULIARTE, ORKESTRA ZUZENDARIA

“Aitona-amonek irakatsi zidaten inoiz egon ez naizen Euskal Herria maitatzen”

LEIRE KORTABARRIA

Argentinako Cordoban jaio zen orain 44 urte. Abizenak aditzera ematen duen moduan, euskal odola du Jorge Uliarte orkestra zuzendariak. GOIENKARIAK martxoan Vienan jasotako kazetaritza diseinu sari banaketa berak girotu zuen vals doinu dotoreekin; gero, hango euskaldunok agurtzera hurbildu zen. Horrela ezagutu zuten elkar Jorge Uliartek eta GOIENKARIAK.

Argentinan jaio zinen eta hara, Ushuaiara, itzultzeko asmatan zabilta, ezta?

Bai. Uda partean izan nintzen han, Ushuaia Musika Klasiko Nazioarteko Jaialdiaren aurkezpen kontzertua zuzentzen. Lehen edizioa apirillean izango da. Suaren Lurra eskualdeko gobernuak horko arte zuzendaritzaren ardura eskaini dit, eta pozik onartu dut. Parte hartuko duten musikariak neuk aukeratu ditut, eta tartean, Euskal Herriko musikari bat eramatea nahiko nuke. Chauvinismorik gabe diot hori. Baina Euskal Herria maite dut; aitona-amonek irakatsi zidaten inoiz egon ez naizen lurralde bat maitatzen.

Aitona-amonak euskaldunak ziren?

Ez ziren Euskal Herrian jaioak, euren arbasoak baizik. Baina maitasun eta interes hori belaualdiz belaualdi pasa zen. Aitonak Gorcka deitzen zidan txikia nintzenean. Nazio sentimenduez baino, herriez berba egitea nahiago dut: aitona esan zidan Europako herri zaharretariko bat zirela euskaldunak, jatorri ezezaguneko hizkuntza batekin... eta hori guztia 5 urterekin entzuten duzunean, maitasun eta jakin-min handia pizten zaizu jatorri horiekiko.

Euskal Herriaz gain, beste herri askorekin identifikatzen zara, ezta?

Hala da, bai. Argentinan jaio nintzen, baina 18 urte ezkerro European bizi izan naiz: Italian lehenengo, gero Suitzan, gero berriro Italian... eta gero, austriar batekin ezkondu eta Austriar bizi naiz orain. Euskal, italiar... jatorria dut. Horrez gain, munduko hamaika herrialdetan egon naiz, nire lanagatik. Ez naiz batere chauvinista. 18 urte nituela joan nintzen etxetik, eta pentsamoldea zeharo aldatu zidan horrek. Leku batean jaio eta bizi zarenean, kultura horren seme zara; baina hortik



Jorge Uliarte, orkestraren entsegu bat zuzentzen.

MARGARETA ULIARTE

“Nazioetasunak joan eta etorri egiten dira, baina geratzen da pertsona moduan zarena”

irten eta mundu kosmopolita batean sartzen zarenean, giza-semeaz arduratzen zara batik bat. Argentinan naiz eta Argentina maite dut eta interes handia dut han gertatzen denarekiko, baina planeta honetako bizilaguna naiz. Nazioetasunak joan eta etorri egiten dira; geratzen da pertsona moduan duzun izaera eta hazkuntza.

Konta iezaguzu, bada, zelan hasi zinen musika munduan eta zelan erabaki zenuen etxetik joatea...

“Ushuaiako Musika Klasiko Jaialdira Euskal Herriko musikari bat eramane nahi dut”

Musikarekiko zaletasuna betidanik erakutsi nuen. Musika ikasten hasi nintzen 4 urterekin, pianoa, hain zuzen ere, eta 18rekin, ikasketak jarraitzeko beka bat lortu nuen. Hala ere, familiak sekula ez zuen nire musikarekiko joeraz zalapartarik egin; aitzitik, ohiko hezkuntza eman zidaten, eta uste dut ondo egin zutela. Halako batean, ordea, bi aukera nituen: musikarekin jarraitu edo abokatu izateko ikasi. Aita abokatua nuen, eta esan zidan: “Hobe duzu Europara joatea, hobe da

“Musikaren bidez, saiatzen naiz publikoari maitasunez betetako mezu bat bidaltzen”

artista gehiago egotea”. Eta beti gogoratu izan dudana egi handi bat esan zidan: “Mundu hau maitasunak eta arteak bakarrik salbatu dezakete”.

Hortaz, erabakia hartu eta Erromara joan nintzen. Han hilabete batzuk eman nituen; gero Lausanneko Musika Kontserbatorioan ikasteko eskakizuna egin nuen, beka bat eman zidaten, eta jotzen hasi nintzen. Nire lehenengo lanetariko bat izan zen Erromako Santa Zezilian, piano-jotzaile moduan.

Piano-jotzaile izatetik orkestra zuzendari izatera jauzi handia dago?

Pianoari, soinu kontzeptu aldetik, mugak sumatzen nizkion, eta uste nuen askatasun handiagoa orkestrak bakarrik eman zitezakeela. Gaztaroa aprobetxatu nuen bakarlarri moduan ospea hartzeko, eta, aldi berean, orkestra zuzendaritza ikasten hasi nintzen. Batez ere, operan sakondu nuen. Salzburgeko Musika Jaialdian parte hartzeko aukera izan nuen, eta horrela hasi nintzen orkestra zuzendari moduan lan egiten. Egia esan, oso urrats naturala izan zen; adibidez, film zuzendari egitea erabakitzen duen aktore baten erabakia bezala. Horrez gain, alde aurreko ikasketek bazuten orkestrazio eta konposizio oinarriak, eta irakasle bikainak izan nituen.

Vienan, sari banaketa ekitaldian zuzendu zenuenean, publikoak oso harrera beroa egin zizuen. Leku guztietan berdin izan da?

Leku askotako publikoa izan dut aurrez aurre, areto handi zein txikiagoetan: AEBak; Viena, noski; Argentina, Mexiko, Erresuma Batua... eta beste asko. Eta nire ondorioa da jendearekin sortzen duzun pertsona arteko harreman kontua dela. Izan ere, komunikabide garrantzitsuenetariko bat da musika, eta saiatzen naiz publikoaren eta orkestraren arteko sinbiosia sortu dadin, eta historia, kultura, emozio... eta batez ere, maitasunez betetako mezu bat bidaltzen.

Baduzu musika pieza gogokoak?

Une horretan bizi dudana egoera emozionalaren arabera aukeratzen dut musika. Mahler, Txai-kovski, Manuel de Falla... oso gogoko ditut, baina baita betiko klasiko handiak ere: Mozart, Beethoven, Schubert, Brahms... Ez dut favorito bakar bat. Une bakoitzean, lagun zahar horiek erantzun bat ematen didate.

Zelan ikusten duzu Europako eta Amerikako musika klasikoak?

Europako egoera beti da aparta, musika klasikoaren hemen jaio zen eta. Entzuten duzun hementxo edozein piezatan sumatzen duzu musika hori hemengo dela. Amerika oso herri musikala da; zelanbait, Europaren jarraipena. Argentina, Brasil, Mexiko... oso interesgarriak dira musika aldetik. AEBek ere europar leku-kotasuna jaso dute, oso ondo prestatutako musikariak dituzte.

Irailak 10-17

Leire Kortabarria / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: kultura@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

MATRIKULAK

ARRASATE

► **Kirol Masterra deitu du HUHE-ZIK** urrirako, eta matrikulazio epea zabalik dago irailaren 24ra bitartean. Izena emateko, deitu 943 71 41 57 telefonora edo bidali mezu bat sarrera@huhezi.edu helbide elektronikora.

DEBAGOIENA

► **AEK euskaltegiak** matrikulazio epea zabaldu du Arrasaten eta Bergaran, irailaren 24 arte. Argibideetarako, deitu honako zenbakietara: 943 77 03 69 (Arrasate) edo 943 76 05 18 (Bergara).

OÑATI

► **Udal Euskaltegiak** zabalik du matrikulazio epea hilaren 21 arte. Horretarako, jo euren egoitzara, Errekalde auzoan, edo deitu 943 78 24 96 telefono zenbakira.

DEIAK

ANTZUOLA

► **Yoga eta erlaxazioa** delako hitzaldia egingo du Jose Luis Armendia adituak astelehenean, hilak 13, Olanar etxean, 19:00etan. Estresari eta bizkarrezurreko arazoei aurre egiteko zelan erabili azalduko du.

ARAMAIO

► **Testu liburuak erosteko laguntzak** deitu ditu Udalak. Haur Hezkuntzako bigarren zikloko, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako liburuendako izango dira. Beroiek eskatzeko mugaeguna urriaren 15a da, eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak Gasteizen, Laudion eta Guardian dituen bulegoetan.

ARETXABALETA

► **Kirol-etxeko ikastaroetarako izenematea** zabalik dago. Besteak beste, spinning, aerobik, karate, aquagym eta igeriketa ikastaroak daude

aukeran. Hilaren 13an hasiko dira. Argibideetarako, deitu 943 71 26 28 telefono zenbakira.

► **Odol-ateratzak** egingo dituzte astelehenean, hilak 13, osasun zentroan, 16:15-20:00.

ARRASATE

► **Musakolako igerileku girotuak** astelehenean, hilak 13, zabalduko dituzte, honako ordutegian: astegunetan, 07:30-21:00; zapatutan, 09:00-13:30 eta 16:00-20:00; eta domeka eta jai egunetan, 09:00-13:30.

► **Arantzazura erromesaldia** egingo dute hainbat herritarrek etzi, domeka. Kontzezinoko arkupetan bilduko dira erromesak 06:30ean. Bedoña, Larrino, Urkulu, Urrexola Garai, Jaturabe eta Gesaltatik pasatuko dira. Han atseden hartu ondoren, santutegira bidea hartuko dute. Goian, harrera egingo diete frantziskotarrek eta Jenaro Lekuona parrokoak, eta 12:00etako meza entzungo dute.

► **Bertso emanaldia** egingo dute Aitor Mendiluze eta Ekaitz Goikoetxeak etzi, domeka, Uribarri auzoan, 12:00etan. Kepa Urainek jarriko ditu gaiak.

► **1943an jaiotako emakumeek** bazkaria egingo dute hilaren 18an, Musakola hostalean, 14:30ean. Izena emateko, jo Muruamendiaraz gozotegira. 20 euro aurreratu behar dira.

► **Zerrajerako garai guztietako langileak** elkarrekin bazkaltzera bilduko dira urriaren 16an, Saran. Musakola hostalean edo Ziorla, Monte, Basati eta Avenida tabernetan izena eman dezakezue urriaren 12a baino lehen. 15 euro aurreratu behar dira.

► **Uribarriko erretiratuen egoitzan** hainbat ekintza antolatu dituzte. Hilaren 13tik 18ra bitartean hasiko dira gimnasia, puntu eta kakorraz-lan, margo, ehoziri-lan eta eskulan ikastaroak. Izena emateko, jo egoitzako bulegora, 18:00etatik 20:00etara bitartean.

BERGARA

► **Spinning, aerobik eta gimnasia ikastaroak** antolatu ditu Udal Kirol Sailak, eta izena emateko, sail horren kontuan 18 euro sartu beharko dituzte.

► **Txapa Irratiak** batzar orokorra

deitu du hilaren 14rako, martitzena, gaztetxean, 19:00etan. Egitarau berria, barne funtzionamendua, 20. urteurrena... landuko dituzte.

ESKORATZA

► **Tortolis ludotekak** hilaren 14an, astelehena, hasiko du ikasturte berria. Ordutegia da 17:00-20:00.

OÑATI

► **Oñatiko danborradaren historia** jakinarazteko hitzaldia egingo dute Pedro Mari Igartua, Jose Luis Madinagoitia eta Argitxu Perosterenak hilaren 15ean, eguaztena, kultura etxean, 19:30ean.

► **Danborradarako entseguak** honako egunetan izango dira: umeenak, hilaren 14, 16, 21 eta 23an, 19:00-20:00; helduen danborradako dantzariak, hilaren 13, 15, 20 eta 22an, 20:00-21:00; eta danbor-jotzaileenak, hilaren 14, 16, 21 eta 23an, 20:00-21:00. Guztiak Errekalde Herri Eskolan izango dira.

► **Odol-ateratzak** izango dira hilaren 17an, egubakoitza, Txantxiku ikastolan, 18:00-20:00, herriko odol-emaileek deituta.

OSPAKIZUNAK

ARETXABALETA

► **Kurtzebarri Eguna** ospatuko dute domekan, hilak 12. Murruxiko taldeak dei egiten die herritar guztioi mendi horretara igotzeko. Salda-jana, meza eta luntxa izango dituzte.

► **Andra Mari jaiak** ospatuko dituzte Areantza elizatean domekara bitartean. Domekan, auzotarrek bat egingo dute Kurtzebarri Eguneke ospakizunekin.

ARRASATE

► **Uribarri-Erguin auzoko jaiak** izango dira gaurtik etzira bitartean. Besteak beste, gaur, egubakoitza, meza, txikiteoa eta erretiratuen afaria izango dira; bihar, zapatua, mus txapelketa, txikiteoa, dantzaldia... eta etzi, domeka, pilota partidua, herri kirolak, bertso emanaldia eta umeendako ekitaldiak.

OÑATI

► **Haurren Eguna** ospatuko dute etzi, domeka, Oñatz dantza taldeak antolatuta. 13 herriko dantza talde

biduko dira. Ospakizunak 09:00etan hasiko dira, kalejirarekin; taldeek alardea egingo dute Herriko Plazan 17:00etan.

► **Atzeko kaleko jaiak** izango dira etzira bitartean, domeka. Gaur, egubakoitza, umeendako jolasak, VI. Irristailu Lasterketa, poteoa, kalejira... izango dira. Rock kontzertua eta punk kalejirarekin bukatuko dute eguna. Bihar, zapatua, etxafuegoak, mendi bizikleta trabesia, Manolo Irizarren omenezko salda jana, herri bazkaria, IV. Garagardo-dastatzea, batukada, rantxerak eta rock kontzertua izango dira, besteak beste. Azkenik, etzi, domeka, hildakoen omenezko meza, mus txapelketa, zezenak eta poniak, erromeria... izango dira.

MUSIKA

OÑATI

► **Stupenda Jones, Lor eta Middle Finger** taldeen rock kontzertua izango da gaur, egubakoitza, Atzeko kalean, 22:15ean.



► JAIK

SAN MARTIN AGIRRE JAIK OSPATUKO DITU BERGARAK ASTE OSOAN

San Martin Agirre eguna hilaren 16an da, eguena; baina Bergara gaur, egubakoitza, hasiko da haren omenezko ospakizunetaz gozatzen. Oro har, kirol, kultura eta aisialdi ekintzaz betetako egunak izango dira gaurtik domekara bitartekoak. Eguaztenean, hilak 15, besteak beste, nagusien danborrada ibiliko da herriko kaleetan; eguenean, 16, meza izango da San Pedro elizan, udal ordezkariarekin, bandaren eta txistularien laguntzarekin; baita Udal Bandaren emanaldia, umeen danborrada, eta disko festa ere. Egubakoitzean, hilak 17, gazta-dastatze lehiaketa izango da, Idiazabalgo adituekin; baita Aukeran taldearen Izena duen guztia omen da dantza ikuskizuna ere. Zapatu eta domekan jarraituko dute ospakizunek.

Non: Bergaran. **Noiz:** hilaren 10etik 19ra. **Ekintza garrantzitsuenak:** eguaztenean hasi eta domekara bitartean.

NUEVA IMAGEN
IKASKETA ZENTROA
ILE APAINTEZ-ESTETIKA

**MATRIKULA
EPEA
ZABALIK**
Maila goreneko
diplomatura

GASTEIZ
Santiago etorbidea 25
(autobus geltokiaren ondoan)
945 27 91 33

Elkargest

@Kontsumoak
@Kontabilitatea
@Inbentarioak
@Albaranak
@Txostenak

Elkarte Gastronomikoak
gestionatzeko softwarea

Aritu S: Coop
943 79 13 28 - 943 71 27 39
<http://www.aritu.com>
aritu@aritu.com

Zinema

► 80ko hamarkadako rock musika emanaldia egingo du Aitona Demonds taldeak bihar, zapatua, Atzeko kalean, 01:00etan.

ANTZERKIA

BERGARA

► **Cuéntalo tú que tienes más gracia** antzezlan eskainiko du Ispilu talde donostiarrak bihar, zapatua, Zabalotegi aretoan, 19:30ean. Bergarar batek, Yolanda Guillenek, zuzenduko du lana. 3 euro da.

ERAKUSKETAK

OÑATI

► **Diego Moyua oñatiarrak** margolanak erakutsiko ditu hilaren 16tik 26ra bitartean, kultura etxean, egunero 18:30etik 20:30era.

IKASTAROKAK

ANTZUOLA

► **Yoga ikastaroa** antolatuko ditu Udalak irailaren 27tik ekainaren 1era bitarteko. Matrikula da 30 euro; ikasturtea bukatuz gero, bueltatu egingo dituzte. Bestela, 15 euro da hilero. Argibideetarako, jo udaletxera.

ELGETA

► **Nekazaritza ekologiko ikastaroa** hasiko da hilaren 27an, urriaren 13 arte. Izena emateko, deitu Ekonekazaritza elkartera (943 76 18 00).

ESKORIATZA

► **Margo tailerra** antolatuko dute urriaren 24 arte. Interesa duzuenok 75 euro sartu behar dituzte honako konturen batean: 2101 0038 56 0000089201 (Kutxa) edo 3035 0044 85 0440900025 (Euskadiko Kutxa). Horrez gain, kultura etxean abisatu behar da.
► **Helduendako in-line patin ikastaroa** deitu du Udalak irailaren 19 eta 26rako eta urriaren 3, 10 eta 16rako. Hastapen mailako eskolak 10:30-12:00 orduetara izango dira, eta sakontze mailakoak, 12:00-13:30 orduetara. Izena emateko, joan kultura etxera hilaren 15a baino lehen.

ARAMAIO

■ KULTURA ETXEA

La joven de la perla
Egubakoitza, hilak 10: 22:30.

BERGARA

■ NOVEDADES

El rey Arturo
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30.
Astelehena, ikuslearen eguna.

ELGETA

■ ESPALDIA

Camino a la perdición
Eguaztena: 21:30.

OÑATI

■ KULTURA ETXEA

Spider-man 2
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.
Astelehena, ikuslearen eguna.

EIBAR

■ UNZAGA

Las crónicas de Riddick
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ RIALTO

La sombra de un secuestro
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ikuslearen eguna.

La vuelta al mundo en 80 días
17:00.

■ GASTEIZ

■ GURIDI

Mar adentro
17:30, 20:00, 22:30.

La sombra de un secuestro
18:00, 20:15, 22:30.

En busca del valle encantado
18:00.

Cuestión de pelotas
18:00, 20:15, 22:30.

Cámara oscura
20:15, 22:30.

Cazadores de mentes
20:15, 22:30.

Spy kids 3D
18:00.

La terminal
17:30, 20:00, 22:30.

El rey Arturo
17:30, 20:00, 22:30.

■ MIKELDI ZINEMAK

Mar adentro
17:30, 20:15, 22:45.

Shrek 2
17:30, 20:15, 22:45.

Kill Bill 2
17:15, 20:00, 22:30.

El rey Arturo
17:30, 20:15, 22:45.

Yo, robot
17:20, 19:50, 22:35.

Zafarrancho en el rancho
17:15.

La terminal
17:30, 20:15, 22:45.

Spider-man 2
17:15.

El código - la mentale
20:00, 22:30.

Fahrenheit 9/11
17:15, 20:00, 22:30.

La sombra de un secuestro
20:00, 22:30.

Martitzena eta eguena, ikuslearen eguna.

■ FLORIDA-GURIDI

Negocios ocultos
18:00, 20:15, 22:30.

Zafarrancho en el rancho
18:00.

Quiéreme si te atreves
20:15, 22:30.

La jirafa
18:00, 20:15, 22:30.

Mala uva
18:00, 20:15, 22:30.

Inconscientes
18:00, 20:15, 22:30.

La gran seducción
18:00, 20:15, 22:30.

Baran (Lluvia)
18:00, 20:15, 22:30.

■ ABACO-LAKUA ZINEMAK

Garfield
16:10, 18:10, 20:10, 22:30, 00:45.

Cuestión de pelotas
16:00, 18:00, 20:10, 22:15, 00:45.

Shrek 2
16:00, 18:10, 20:15.

Isi / Disi
22:30, 00:45.

Catwoman
16:00, 18:15, 20:30.

Yo, robot
16:30, 19:00, 22:00, 00:30.

Madhouse
16:00, 18:15, 20:15, 22:15, 00:30.

El rey Arturo
16:30, 19:10, 22:00, 00:45.

La vecina de al lado
22:00, 00:45.

Las mujeres perfectas
22:00, 00:30.

Zafarrancho en el rancho
16:20, 18:00, 19:45.

Spy kids 3D
16:00, 18:00, 20:00.

El año de la garrapata
22:10, 00:45.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan. Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ YELMO CINEPLEX-GORBEIA

Mar adentro
12:15, 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

Chicas malas
12:15, 16:45, 18:45, 20:45.

Garfield
12:15, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

Isi / Disi
20:40, 22:40, 00:40.

Crónicas de Riddick
12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Cazadores de mentes
12:15, 16:05, 18:05, 20:15, 22:20, 00:35.

El rey Arturo
12:15, 16:20, 19:00, 21:30.

24 horas al límite
12:15, 16:20, 18:20, 20:20.

Spy kids 3D
12:15, 16:40, 18:40.

Cámara oscura
18:05, 20:15, 22:35, 00:45.

La sombra de un secuestro
20:35, 22:35, 00:35.

Yo, robot
22:20, 00:40.

Zafarrancho en el rancho
12:15, 16:05.

Las mujeres perfectas
22:45, 00:45.

La terminal
12:15, 17:05, 19:30, 22:00, 00:30.

Cuestión de pelotas
12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

Madhouse
12:15, 16:25, 18:25, 20:25, 22:25, 00:25.

Mamá a la fuerza
12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan. Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ ÁBACO BOULEVARD

Garfield
12:20, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:45.

Mar adentro
12:10, 17:00, 19:40, 22:10, 01:00.

La maldición 2
12:00, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

Chicas malas
12:10, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:40.

La terminal
12:20, 17:05, 19:45, 22:30, 01:05.

Las crónicas de Riddick
Egubakoitza: 17:15.

Yu-gi-oh
Zapatua: 17:15.
Domeka: 12:10, 17:15.

Cuestión de pelotas
12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:45.

Spy kids 3D
12:10, 16:20, 18:20, 20:20.

La sombra de un secuestro
20:30, 22:40, 01:00.

Shrek 2
12:20, 16:20, 18:20.

Mamá a la fuerza
12:10, 17:10, 20:10, 22:35, 01:05.

Cazadores de mentes
12:15, 17:20, 20:10, 22:20, 00:45.

El rey Arturo
Egubakoitza: 17:05, 19:45, 22:25, 01:05.
Zapatua: 19:45, 22:25, 01:05.
Domeka: 19:45, 22:25.

La vecina de al lado
22:40, 01:00.

Zafarrancho en el rancho
Zapatua: 17:05.
Domeka: 12:00, 17:05.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan. Eguaztena, ikuslearen eguna.

La joven de la perla: ●●●● | Kill Bill 2: ●●● | Shrek 2: ●●● | Spider-man 2: ●● |

ESKASA: ● BALEKOA: ●● ONA: ●●● OSO ONA: ●●●● BIKAINA: ●●●●●

KRITIKA

LA SOMBRA DE UN SECUESTRO

PUNTUAZIOA: ●●●

ZUZENDARIA: Pieter Jam Brugge.

AKTOREAK: Robert Redford, Helen Mirren, Willem Dafoe.

Agian, egunkari edo aldizkari bat hartu eta filmaren izenburua eta aktoreak nortzuk diren irakurri gero, argi izango dugu zeri buruzkoa den kontatzen zaigun istorioa (bahiketa kasu bat kontatzen digu), eta filmean Willem Dafoe parte hartzen duenez, badakigu derrigorrez (zineman pertsonaia maltzur pila bat egin ditu-eta)

hark izan behar duela istorioaren bahitzailea. Horrela, pentsa dezakegu hamai-ka aldiz ikusitako film baten aurrean gaudela, baina ez da halakorik gertatzen. *La sombra de un secuestro*-k bahiketa filmen pauso batzuk jarraitzen ditu: bahiketaren momentua ikusten da, gaizkileak bahituaren senideekin eta horiek ikertzailerekin dauzkaten harremanak erakusten ditu... baina baditu, era berean, bereizgarri diren bi ezaguri nagusi: denborarekin jolasteko ahalmena eta pertsonaiengana hurbiltzeko modua. Denborari dagokionez, zuzendariak badaki denboran jauziak egiten, ekintzak azaltzeko modua ez da lineala, nahastu egiten du gertatzen ari dena lehen gertatutakoarekin, eta horri gehitzen badiogu istorioari hurbiltzeko modu isil-gordea, tentsioa eta ikuslearen jakin-minari ederkie eusten dion filma daukagu.



Pertsonaiengana hurbiltzeko modua ere berezia da. *La Sombra de un secuestro* aurpegi buruzko film bat da. Kamera hirukote protagonisten aurpegi-tara eransten da, euren keinuekin barru-

tik bizitzen ari diren beldur, amorru, ahu-lezia, eta samindura adierazteko. Robert Redford bere pertsonaiari aktoreak duen karisma ematen badio ere, ez du heroi tipikoaren rola betetzen, Willem Dafoe psikopataren pertsonaiari bere alde zaurigarria topatzen dio; eta Helen Mirren egiten duen lana, ohikoa den bezala, benetan zoragarria da. Denborarekin jolasteko filmari tentsio berezi bat ematen dio, eta pertsonaiengana hurbiltzeko moduarekin pertsonaiak gizatiarragoak eta hurbilagoak izatea lortzen da. Batez ere bi ezaguri horien bidez, *La sombra de un secuestro*-k genero horretako beste film topikoetatik ihes egitea eta hasiera baten ematen zuen baino proposamen erakargarriagoa izatea lortzen du.

ANTONIO ZABALA

ORAIN, ZINEMA IKUSTEKO AUKERA PREZIO MURRIZTUAN
ASTEKO EGUN GUZTIETAN

Moztu txartel hau, eta sarrerak prezio murriztua izango du, zuretzat eta zure lagunarentzat

BIKOTEKIDEA
ZAIN DUZU

04/09/30era arte baliagarria



ABACO-N, ZURE EDALONTZIAK SARIA DAUKA, SEGURU!

www.cinesabaco.com

IMMOBILIARIA
IBARGARAI 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
SANTI KUTZ 8 • LEGAZPI
Tel.: 943 73 05 25

ETXEBIZITZAK SALGAI
Bergara:
• Zubiaurre 50 m². Berrituta.
• Masterreka 75 m². Berritzea.
• Azkarruntz 80m². Berrituta.
• San Pedro 150m². Ondo.
Antzuola:
• Hamaika etxebizitza eraikin berria. Ondo kokatuta. Garajea aukeran.

PABILIOIA SALGAI
• Osintxu 660 m²

BASERRIAK SALGAI
• Elosun, Osintxu, Angiozarren, Sorluzen eta San Juanen.

LOKALAK ETA GARAJEAK SALGAI ETA ERRENTAN

DEBA GARAIA INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T. 943 76 21 80 F. 943 76 06 37
Zarugalde 1 Arrasate
T. 943 77 13 02 F. 943 73 12 40

ETXEBIZITZAK SALGAI
BERGARA:
• Ozaeta 70 m². Berrituta.
• Martoko 60 m². Berrituta.
• Zubiaurre 51 m². Eguzkitsua. Garajea.
• Erdialdea 78 m². Berrituta.
• San Anton 67 m². Berrituta.
ANTZUOLA:
• 11 etxebizitza berri.
• Behoko auzoa 60 m². Berrituta.
SORALUZE:
• 80 m². Berrituta. Garajea eta bokoa.
BASERRIAK
• Angiozar 600 m² eta lursaila.
• Elosua 405 m² eta lursaila.
Bergaran salgai eta errentan:
Lokalak, pabilioiak eta garajeak

Iragarki sailkatuak

1. ETXEBIZITZAK 101. SALDU 102. EROSI 103. ERRENTAN EMAN 104. ERRENTAN HARTU 105. ETXEA OSATU 106. BESTELAKOAK	2. GARAJEAK 201. SALDU 202. EROSI 203. ERRENTAN EMAN 204. ERRENTAN HARTU 205. BESTELAKOAK	3. LOKALAK 301. SALDU 302. EROSI 303. ERRENTAN EMAN 304. ERRENTAN HARTU 305. BESTELAKOAK	4. LANA 401. ESKAINTZAK 402. ESKAERAK 403. BESTELAKOAK	5. IRAKASKUNTZA 501. JASO 502. EMAN 503. BESTELAKOAK	6. MOTORRA 601. SALDU 602. EROSI 603. ALOKATU 604. BESTELAKOAK	7. ANIMALIAK 701. SALDU 702. EROSI 703. EMAN 704. BESTELAKOAK	8. DENETARIK 801. SALDU 802. EROSI 803. EMAN 804. HARTU 805. TRUKATU 806. GALDU 807. AURKITU 808. BESTELAKOAK	9. HARREMANAK 901. AGURRAK 902. HARREMANAK 903. DEIAK 904. BESTELAKOAK	10. RELAX
---	---	--	--	--	---	--	--	---	------------------

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 76 92 71

sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 15 € (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO. GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aretxabaleta. Erdialdean. 80m². Hiru logela eta egongela. Dena kanpora begira. Bizitzaren hasteko moduan. Deitu 17:00etatik 21:00etara. 627 34 92 27.

Arrasaten. Makatzenan etxebizitza salgai. Oso eguzkitsua da. 943 79 42 68.

Aretxabaleta. Atikoa salgai. Beroan, estreinatua gabea. 75 metro koadro erabilgarri. Garajea ere badauka. Telefonoa: 618 87 34 35.

Bergara. Etxebizitza salgai Zubiaurren. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainuagela. 646 03 24 93.

Elgeta. Etxebizitza salgai. Bigarren solairua. Igogailua du. 645 71 76 25.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Erdialdean ikasleentzat etxebizitza ematen da errentan. Oso egoera onean. Merkea. Deitu gauzez. 943 03 78 31.

Arrasate. San Andres. Etxebizitza errentan. Ondo dago. 943 70 64 78.

Arrasaten. Apartamentua alokagai daukat herri erdialdean. Berrituta eta jantzita. 600 euro hileko. Telefonoa: 605 71 37 77.

Arrasaten. Etxebizitza alokagai daukat Altamiran. 118 metro koadro ditu. Lau logela, egongela-jangela, bi komun eta sukaldea. 780 euro hileko. 627 48 63 01 edo 943 79 88 31.

Benidormen. Igerilekua eta aire girotua ditu. Telefonoa: 666 18 53 87.

Chiclana (Cadiz). Lau mendiko bungalow errentan ematen ditut, eguneko. Hondartzatik 3 km-ra. Barbakoa, garajea birendako eta bi estratrendako lekua. 52 euro bungalow eta gaueko. Amaia. 620 26 80 24.

Donostia. Ikasle edo irakasleei errentan emango nieke etxebizitza, Konstituzio plazan. 943 78 05 24.

Eskoriatza. Etxebizitza alokagai daukat. 943 71 41 38.

Oñati. Etxea jantzia dago. Edurra. 615 78 20 92.

Oñati. Ikasle edo irakasleei errentan emango nieke etxebizitza, Olakua auzoan, unibertsitateko oso-oso gertu. Bi logela. 943 78 16 33.

Vera (Almeria). Hondartzan naturistan. Apartamentua errentan gune naturistan. Jantzia. Igerilekua. Telefonoa: 673 93 94 25.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Emakume langile batek etxebizitza txikia behar du. Berarentzat bakarrik. 670 24 19 30.

DEBAGOIENA

KOMERTZIALA BEHAR DA ETXE AGENTZIA BATERAKO

BALDINTZAK:
EUSKARAZ HITZ EGITEN ETA IDAZTEN JAKITEA.
AUTOA EDUKITZEA.

BIDALI CURRICULUMA 190 POSTA-KUTXATILARA. ARRASATE.

105. ETXEA OSATU

Bergara. Etxebizitza bat daukat Espoioian, eta pertsona bat behar dut etxebizitza osatzeko. 605 77 51 82.

Gasteiz. Bi neska behar dira campusaren ondoan ikasle etxebizitza osatzeko. 647 92 75 26.

106. BESTELAKOAK

Bergara. Logela errentan ematen da, asteleneretik ostiralera. 200 euro gastuak barne. 670 40 74 53.

3/ LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Urbe auzoan lokala errentan. 100 m². Obra egin da. 635 74 70 05.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasaten. Emakume eskalduna behar da zapatu eta domeketan emakume nagusi bat zaintzeko. Zortzietatik aurrera deitu. 943 79 19 64.

Bergara. Emakumea behar da etxeko lanak egiteko. 676 22 33 18.

Bergara. Pertsona bat behar da 4 eta 7 urteko ume bi zaintzeko, astean hiru arratsaldetan. 943 76 71 04 edo 628 48 52 34.

Bergara. Pertsona bat behar da etxeko lanak egiteko. 676 19 87 65.

Bergara. Emakumezko arduratsua batek hainbat lan egingo lituzke: etxeak edo bulegoak garbitu; zaharrak edo umeak zaindu; tabernetan jardun, e.a. 639 77 39 56.

Bergara. Emakumezko batek pertsona helduak zainduko lituzke gauzez. 639 46 50 15.

Bergara. Neska eskaldun batek haurrak zainduko lituzke arratsalde. Esperientzia. 649 36 13 47.

Tailerretarako edo fabrikatutako lanak etxean egingo nituzke (kaxak, piezak montatu...). 617 07 16 37 edo 943 71 17 99.

da etxeko lanak egiteko, 08:00etatik 13:00etara. 943 76 71 04 edo 628 48 52 34.

402. ESKAERAK

Arrasate. Neska goizek eta orduka etxeko lanak egiteko gertu. 669 11 28 94.

Arrasateko emakume eskaldun bat prest dago edozein lanerako. Telefonoa: 659 82 75 18.

Arrasateko Urbe auzoan, emakume bat behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 19:00etatik aurrera deitu, mesedez. 943 77 16 19 edo 676 05 53 40.

Arrasaten. Neska batek bere burua eskaintzen du umeak eta nagusiak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko. 676 19 87 65.

Bergara. Emakumezko arduratsua batek hainbat lan egingo lituzke: etxeak edo bulegoak garbitu; zaharrak edo umeak zaindu; tabernetan jardun, e.a. 639 77 39 56.

Bergara. Emakumezko batek pertsona helduak zainduko lituzke gauzez. 639 46 50 15.

Bergara. Neska eskaldun batek haurrak zainduko lituzke arratsalde. Esperientzia. 649 36 13 47.

ARETXABALETA

ZERBITZARIA BEHAR DA ASTEBURUETARAKO.

647 05 42 75

5/ IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Antzuola. Ingelesko eskola partikularra ematen dira. Maila guztiak. Azterketak. Etxean bertan. 610 97 49 68.

Arrasate. Behar bereziak dituzten umei laguntza eskola ematen dizkiet. 645 73 04 69.

Bergara. Eskola partikularra ematen ditut. Amaia. 943 76 39 29 edo 605 72 13 32.

Bergara. Irakasle ikasketak dituen neska batek LHko ikasleei eskola partikularra emango lizkieke. Irune. 699 89 36 53.

Bergara. Irakasle ikasketak ematen dituen neska Lehen Hezkuntzako, Haur Hezkuntzako eta DBHko eskolak emateko gertu. 652 76 12 81.

Eskoziako gaita jotzen irakasten dut. 645 73 12 16.

Oñati. Kimikan lizentziadunak Matematika, Fisika eta Kimikako eskola partikularra emango lituzke. Iratxe. 943 78 19 59.

6/ MOTORRA

601. SALDU

BMW RT 1.150 R. motorra salgai. Bi urte eta erdi ditu,

Garbi S.L.

PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.

943 33 18 37 (HERNANI)
649 84 67 09 (BERGARA)

8/ DENETARIK

801. SALDU

Intxaurrek eta urrak salgai. Zapatuetan saltzen ditugu. 943 76 64 65.

Ordenagailua salgai. Pentium III, 450 MHz, 128 Mb RAM, pantaila 17", Windows XP. Berria. 300 euro. Telefonoa: 637 83 18 45.

Sofa-oheta (1,5m) salgai eta jangelako mahaia lau aukirekin salgai. 943 71 46 82.

Tronpeta salgai. Egoera onean. Deitu telefono honetara: 943 78 70 52.

802. EROSI

Liburuak, bigarren eskukoak. Kurtzebarri Eskolako DBHko lehen mailakoak behar ditut. 649 55 48 10.

Soinu txikia erosiko nuke. Urgentea. 943 03 88 03.

Txanponak eta bankuko billeteak erosiko nituzke. Bila joateko gertu nago. Deitu 17:00etan. 945 44 50 44.

806. GALDU

Seiko markako erlojua galdu nuen abuztuaren 27an Torrekuatik Labegarietara joateko dagoen tunelaren ondoan. Uhala granate kolorekoa. Zerbaki erromatarak. 943 03 88 53.

BERGARA

SIRIMIRI JATETXEAN SUKALDARIA BEHAR DA.

943 76 59 19

ARAMAIO

ZERBITZARIA BEHAR DA ASTEBURUETAN LAN EGITEKO.

626 75 91 04



ESKELA

Juan Jose Uriarte Muruaga

“Bermi”

2004ko uztailearen 19an hil zen, 57 urte zituela.

Nahiz eta gure artetik urrutira joan, aspaldiko ikaskideok izango zaitugu gogoan. Zu ezagutu izanaren zortea gogoratuko dugu luzaroan.

Eskolako ikaskideak.
Arrasaten, 2004ko irailaren 10ean.

ESKER ONA

Juanita Agiriano Argarate

Moises Gabilondoren alarguna

Arrasaten hil zen 2004ko abuztuaren 26an, 85 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2004ko irailaren 10ean.

ESKER ONA

Felipe Azpiazu Alberdi

Gasteizen hil zen 2004ko uztailearen 24an, 73 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2004ko irailaren 10ean.

HILDAKOAK

Guadalupe Garro Abarrategi. Eskoriatzan, abuztuaren 18an. 81 urte.
Txomin Gurrutxaga Lizarralde. Bergaran, irailaren 2an. 90 urte.
Eloy Roa Lana. Oñatin, irailaren 3an. 79 urte.
Jesusa Inza Guridi. Oñatin, irailaren 4an. 73 urte.
Igone Belaztegi Aizpiri. Bergaran, irailaren 4an. 68 urte.
Jesus M. Larrea Gabilondo. Antzuolan, irailaren 5an. 43 urte.
Bizente Elorza Beitia. Oñatin, irailaren 6an. 83 urte.
Francisco Rus Cejudo. Aretxabaletan, irailaren 6an. 87 urte.
M. Celina Onraitia Mendiola, "Trini". Oñatin, irailaren 7an. 85 urte.
Blas Vargas Delgado. Antzuolan, irailaren 7an. 76 urte.
Mercedes Alvarez Gallego. Arrasaten, irailaren 7an. 55 urte.



Kontxita Azkargorta eta **Jabier Etxeberria** orain dela 50 urte ezkondu ziren Arrasteko San Juan Bautista elizan. Familiaren partetik, zorionak, Kontxita eta Jabier, eta zoriontsuak izan zaitezte!



Oñatiko Tokillo baserriko **Martzeliño Moia** eta **Zezilia Uribeetxeberria** duela 50 urte ezkondu ziren Oñatiko San Migel parrokian. Bihar, meza eta bazkaria egingo dute, familiakoekin batera, urrezko ezteiak ospatzeko. Zorionak!

Eskela, urteurren meza edo eskertzarik jarri nahi baduzu, etor zaitez GOIENKARIAren ordezkarietako batera.



GOIENKARIA
Astero 21.500 etxetan.
Eskelen prezioa: 80 €.



Joakin Baltategi eta **Arantxa Zezeaga** bergararrak Elorregin ezkondu ziren duela 50 urte, eta hantxe ospatuko dituzte urrezko ezteiak bihar, zapatuan. Bazkari eder bat egingo dute senideekin batera. Zorionak, bioi, familia osoaren partetik!



Barakaldoko **Jose Luis** eta Oñatiko **Miren** bihar, irailak 11, ezkonduko dira Oñatiko Bidaurreta elizan. Oso egun berezia izango delako, zorionak, bioi, Oñatiko koadrilakoen partetik!

ESKER ONA

Jacinto Cuadrado Lopez

Donostian hil zen 2004ko abuztuaren 25ean, 71 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2004ko irailaren 10ean.

ESKER ONA

Antonia Irala Idigoras

Bergaran hil zen 2004ko abuztuaren 26an, 89 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2004ko irailaren 10ean.

URTEURRENA

Maria Magdalena Garmendia Larrañaga

Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 12an, 13:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztu aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Tomasa Barrutia Zabaleta

Felix Laskurainen alarguna

Bilbon hil zen 2004ko abuztuaren 30ean, 91 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.




Bergaran, 2004ko irailaren 10ean.

ESKER ONA

Txomin Gurrutxaga Lizarralde

Bergaran hil zen 2004ko irailaren 2an, 90 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2004ko irailaren 10ean.

URTEURRENA

Miren Arantzazu Azkarate Bengoa

Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 12an, 13:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztu aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Maritxu Igartua Kortabarria

Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 12an, 13:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztu aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Miguel Angel Albistegi Anduaga

Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 12an, 13:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztu aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

HITZGEZIDUNAK

Luma

	Pertsona aberatsa	*Izena	Suitzako ibaia
	Esnekia	Ziba	
	Gernua		
	Einstenioa		
Pobretasun	Herri giputz		
Txorizo mehe	Letra grekoa		
			Ilun, ospel
Jainko grekoa	Infin., atoitu		
*Deitura	Erabat, txit		
			Tona
			Eskuko hatza
Basam ortuko zelai		Ukatzeko	
Kanpo, landa		Ile nahasia	
	Molusku preziatua		
	Onomatopeia		
Zerez atzizkia	..egin, garaitu		
Osagarri	Etxeko erregai		
			Kontsonante a
			Utikan !
Oinarritzko edaria		Karta joko	
Kezkatu, arduratu		Bat	

BILABILA7



UMOREGIROAN/ Pedro Zelaia

Pedro Zelaia argitaratutako txiste bilduma-liburutik hartuta.

UME MEIA

Ama batek eruan zeban Eibarko mediku entzute-tsu batengana bere seme-txua.

- Zer sentitzen dau ba?, diño sendagileak.

- Ara ba..., meia dao-ta.

- Jateko gogorik badauka?

Bai, ondo jaten dau, bai-ña meia dao. Indisiño batzuk edo ez litxuzke artu-ko ia loditzen dan?

Sendagilleak orduan:

- Zer indisiño ta ze demontre! Saldu eñ bihar dozu pixura txarrixan moduan ala?

ESPEDIZIÑUAK ETA ENTIERRUAK

Don Antonio Azpiri abadia eliza aurrian zeguan.

Onetan, Bistalegre kaletik bera, Alfako biargiñak bazaroiazan kajak —entier-ruetakuen itxurakuak— bizkarrian, estaziñoruntz. Don Antonio —ulertzailia iñor bazan— urreratu jakue eta:

- Zer mutillak, entier-rua ala?

Alfatarrak:

- Entierrua ez, espedi-ziñuak!

Andik egun batzuetara, Eibarren egun berian iru entierro izatia gertatu zan.

Urreratu ziran gure alfatarrak Don Antonioga-na eta esaten detse:

- Zer, Don Antonio, espe-diziñuak?

- Ez, entierruak!

EZETZASMATU!

Estepan Plazaola



Zein ez da Asier Altunaren filma?

Asier Altuna zine zuzendari bergararra *Aupa Etxebeste* filma errodatzen dabil bere jaioterrian. Horixe izango da Asierrren lehen film luzea, baina lehendik eginak ditu zenbait film labur. Jarraian sartu ditugu horietako batzuen izenburuak, baina bat ez da zuzena. Asmatuko zenuke hauetako zein ez den Asier Altunaren film labur baten izenburua?

- Topeka.
- 40 ezetz.
- Baten parra bi baietz.
- Txotx.

Erantzun zuzena: Baten parra bi baietz.

SOLUZIOAK



U	T	A	S	T	N	A
S	U	M	A	R	U	•
T	•	I	A	G	V	S
L	I	X	T	•	Z	A
A	R	A	T	S	O	•
Z	E	•	I	S	A	O
T	•	A	L	O	R	A
I	O	T	A	•	O	I
•	R	O	T	S	I	X
R	A	B	I	E	•	T
A	X	I	P	•		
A	Z	A	G			
•	I	•	K	•		

ASTEKO HOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkarte

ARIES

martxoak 21-apirilak 21



Beti dudatan eta beti guztieren beldur. Horrela ez duzu ezer lortuko. Bestalde, ezer egin aurretik, ondo pentsatu; argi izan behar duzu zer gura duzun. Eta aholkua behar baduzu, eskatu, ez izan hain harroa.

TAURUS

apirilak 22-maiatzak 21



Azkenean ere, horrenbeste espero zenituen emaitzak lortuko dituzu. Gainera, nagusien konfiantza osoa izango duzu eta zure proiektuak aurrera eraman ahal izango dituzu. Horrez guztiaz gainera, soldata igoera.

GEMINI

maiatzak 22-ekainak 21



Ezusteko aldaketak bikotekidearekin duzun harremanean; izan ere, neska/mutil batek baino gehiagok zurekin ligatu gura izango du; horren ondorioz, bikotekidea utzi egingo duzu.

CANCER

ekainak 22-uztailak 22



Zure egoera ekonomikoak hobera egingo du, egin dituzun esfortzuegatik eta, era berean, zorte handia izango duzulako. Horrek guztiak erlaxatu egingo zaitu, eta baliteke opor egunen batzuk hartzea.

LEO

uztailak 23-abuztuak 22



Kaos handia bizi duzu, eta ez dakizu zer gura duzun. Horrek arazoak sortuko dizkizu ingurukoekin. Bestalde, ahalegin zaitze debaitean ez sartzen; izan ere, zure bikotekideari kalte egin diezaioketen hainbat gauza entzun ditzakezu.

VIRGO

abuztuak 23-irailak 22



Bikotekiderik ez baduzu, oso pertsona atsegina ezagutuko duzu lanean. Baina bikotekidea baduzu, zuen arteko harremana sendotu egingo da, eta ezkontza gertu egon daiteke. Bestalde, inbertsio produktiboak egingo dituzu eta zure kapitala hazi egingo da.

LIBRA

irailak 23-urriak 22



Hainbat proiektu dituzu esku artean eta beste hainbat gauza buruan; hala, inoiz baino motelago ibiliko zara. Are gehiago, hanka-sartze handiak egin zenitzake.

SCORPIUS

urriak 23-azaroak 22



Oso aste aproposa zure ametsak errealitate bihurtzeko; izan ere, zortea alde izango duzu. Era berean, magnetismo eta sentsualitate handia izango duzu.

SAGITTARIUS

azaroak 23-abenduak 21



Lagun bat azpikeriatan dabilela frogatuko duzu, zu eta zure lagun asko maneiatzen dituen lagun bat. Horrenbestez, zuon bion arteko harremana apurtu egingo duzu, eta berehala konturatuko zara erabaki ona hartu duzula.

CAPRICORNUS

abenduak 22-urtarrilak 20



Azkenean ere, gura duzuna egiteko denbora luzeagoa izango duzu, eta horrek lasaitasun handia emango dizu. Bestalde, aspalditik datorren arazotxo bat konpondu, eta diru sarrera estra izango duzu.

AQUARIUS

urtarrilak 21-otsailak 20



Osasunez makal samar ibiliko zara, energia barik, anemia puntuarekin; hortaz, zaindu egin beharko duzu. Edozelan ere, erabakiak zuk zeuk hartu behar dituzu, ez utzi beste inorenengan ardura hori.

PISCIS

otsailak 21-martxoak 20



Beti ari zara esaten diru asko duzula, nahiz eta egia ez izan; horren ondorioz, diru asko xahutuko duzu eta zure aurrekontua kili-kolo geratuko da.



Irailaren 13a: 012 zozketa

Harpidedunen
txokoa

Sariak, astero!

Astelehenean, irailak 13, sari hauek izen-abizenak izango dituzte.
Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetako bat!

Irailaren 13ko sariak

• **WHIRPOOL**
mikrouhin-labea.

• Donostiako
AQUARIUMera
joateko lau
gonbidapen (saridun
bakoitzarendako
bi sarrera).

• **YELMO CINEPLEX**
Gorbeia merkataritza-
guneko zinemetara
joateko lau gonbidapen
(saridun bakoitzarendako
bi sarrera).

• **'IPUIN KLASIKOAK'** liburua, Erein argitaletxearen
eskutik.

• **'MAITEMINDUAK'** liburua, Erein argitaletxearen
eskutik.



FITERORA!

Fiteroko bainu-etxean
bi lagunendako aste
bukaera zozketatuko
dugu, urrian. Zorte on!

Viajes Eroski
Bidalak
Laguntzailea

BALDINTZAK

- Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera,
09:00etatik 21:00etara.

Urte amaierara arteko harpidetza: **10 €**

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

011
zozketa
saridunak

Hauek izan dira
aurreko zozketako irabazleak.
Zure izena zerrendan badago,
ZORIONAK!

SARI NAGUSIA
Phillips DVD
irakurgailua

• Juan Inazio
Zelaia
(Oñati)

'Sinonimo eta
Antonimoen
hiztegia'

• Elvira Lizarralde
(Oñati)

**Aquariumerako bi
sarrera**

• Ana Cabezas
(Bergara)

• Teresa
Arriolabengoa
(Aramaio)

• Elixabet
Lasagabaster
(Aretxabaleta)

• Luis Agirrebeitia
(Arrasate)

**Yelmo-
Cineplexerako
sarrerak**

• Jesus Mari Alaba
(Arrasate)

• Arantza
Garmendia
(Bergara)

• Jose Luis
Arantzabal
(Bergara)

• Rosario Ruiz de
Alegria (Arrasate)

TELEBERRIAK

ETB1ek 'Kutsidazu Bidea, Ixabel' antzezlanaren egokitu du, telebistarako

ETB1ek *Kutsidazu bidea, Ixabel* antzezlan arrakastatsua grabatu eta egokitu egin du, neguan telebistaz emateko. Hain zuzen ere, Miramongo estudioetan egin dute grabazioa, eta Gabonak aldera emango dute. Era berean, datorren urtean, istorio horretan oinarritutako telesail eta film luze bana egingo dituzte, Orío, Tentazioak eta REC etxeek ekoiztuta, EiTbren partaidetzarekin. Aurreikusitakoaren arabera, 2005eko uda baino lehen hasiko dira grabatzen. Istorioaren oinarria orain arteko bera izango da, baina aldatetaren bat ere izango du.

Michael Moore zuzendariak ez du aurkeztuko Oscar sarietara 'Fahrenheit 9/11' dokumentala

Michael Moore amerikarrak nahiago du bere azken dokumentala telebistaz eman Oscar sarietara aurkeztu baino. Kontua da zuzendari amerikarrak AEBetako hauteskundeak baino lehen emititu nahi duela AEBetako presidentea horren gogor kritikatzaren duen dokumentala. Hala, azaroaren 2a baino lehen egin beharko du hori, beharreko hitzarmena lortzen badu. Eta horren ondorioz, dokumental horrek galdu egingo du aurtengo Oscar sarietara aurkezteko aukera.

GORKA ETXABE/ GOIENA TELEBISTAKO INFORMATIBOETAKO ARDURADUNA**“Azken urteotan ahalegindu gara gertuko telebista egiten, kalitatezkoa eta duina”**

UBANE MADERA

GOITBko zuzendariaren ostean, GOITBko erredaktore-buru Gorka Etxabe dugu berba lagun. Telebistako albisteak dira bere ardura eta ez du zalantzarik izaten kamera aurrean ipintzeko orduan.

Albistegien platoetan berritasunak izango direla kontatu zigun Oihane Agirrek, moderatzaileak izango direla; modernitate horrek albistegietan izango du eragina?

Bai. Egia esan oraindik zehaztu barik dago, baina izenburuak albistegiko karetei itsatsita joango dira; beharbada iragarkien aurretik aurreratuko ditugu izenburu eran iragarki osteko albiste batzuk... itxura dinamikoagoa izango du informatiboak.

Eguneroko albistegien osagarri diren programek parillan segituko dute?

Batzuk bai, denek ez. *Sarrera doan* eta *Soinuz blai* ez dira emitituko urtarrilerara arte; haien orde bestea saio batzuk sartuko ditugu. Baina *Herriz Herri, Aste-bete*... oro har, telebistaren bizkar-hezurra orain arteko bera izango da.

Telebistan izango diren aldaketan artean, jakin izan dugu zuk zeuk atsedenditxo bat hartu behar duzula...

Bai. Kontua da irailaren erdialdetik aurrera ez naizela telebistan izango, batetik, atsedenditxo bat hartzearen eta bestetik, beste lan bat egin beharra dudalako: Migel Altuna Institutuaren 75. urteurreneko bideo eta liburu bana. Dokumentazio lana egin behar da, artxiboetara jo behar dugu, liburua bera idatzi egin behar da... Eta horretara bideratuko dut



U.M.

“Itxura dinamikoagoa izango dute aurten informatiboak”

nire lana datozen hilabeteotan. Ez dakit zenbat hilabete izango diren, bi-hiru bat hilabete.

Dagoeneko lau urte daromatxazu telebistan lanean, horietatik bi pasatxo erredak-

“Telebistan oso gaitza da jendea erakartzea, kompetentzia handia delako”

tore-buru izaten; zein da telebistan egin duzun ahaleginik handiena urte horietan?

Ahalegindu gara gertuko telebista egiten eta aldi berean kalitatezko telebista duina egiten.

Formetan oso konbentzionala da; gure informatiboak dira gainerako telebistek eskaintzen dituzten informatiboen antzerakoak eta ahalegintzen gara gure programak erakargarriak izaten. Telebistan oso gaitza da jendea erakartzea, kompetentzia oso handia delako. Hala, gu ahalegindu gara gertutasunetik informatzen eta telebista entretenigarria egiten. Badakigu adineko jendea erengana iristen garela, baina jende gazteagoak (30 urtetik behera) ez gaitu horrenbeste jarraitzen. Hori landu behar dugu eta gauza berriak asmatu behar ditugu, jende mota hori ere erakartzeko.

Gure ibarrean jende askok ezagutuko zaitu dagoeneko, baina Mendizorrotza aldean ere ezaguna omen zara...

(Barre) Pentsa ezazu, aurten zortzigarren urtea egingo dut Alaves taldearen *speaker* lanetan, eta lehen ez ninduen inork ezagutzen. Baina azken bi urteotan, telebistak-eta *speaker*-aren lana ikusteko etorri dira... Horren ondorioz, Arabako herri-telebista gehienetan agertu naiz erreportajeak egin dizkidatelako. Iaz ETB berak ere egin zuen erreportaje txiki bat. Gero gainera, aurten zelai erdira atera behar izan dut jokalaria aurkeztera mikrofonoa eskuetan dudala...

Esan genezake Pitermanen etorrerarekin ikusgarriagoa dela guztia, ezta?

Egia da. Ekialdeko herrialderen batekoa da bera, baina joera erabat amerikarra du: komunikabideetan asko azaltzen da; futbol-zelaian zozketak egiten ditu bazkideen artean; entrenamenduetan parte hartzen du; zelai erdira ateratzen da... Detailtxo bat: aurreneko partiduan lehengo bere bi hitzak euskaraz izan ziren. Oso *popularra* da.



Urte bukaera arteko harpidetza.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenean egubakoitzera,
09:00etatik 21:00etara.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Inoiz ez da berandu ESKAINITZA ONA BADA

Trailean oporrak

Irteerak Bilbotik

MALLORCA

8 egun / 7 gau
APTOS. DEYA 2LL OCC. 4 PERTS.

OSTATUA BAKARRIK **186**

TENERIFE

8 egun / 7 gau
H. CHIMISAY ***

OSTATUA ETA GOSARIA **306**

PUNTA CANA

9 egun / 7 gau
H. BARCELÓ BÁVARO VILLAGE ****

GUZTIA BARNE **650**

BALEARRAK ETA KANARIAK 8 egun / 7 gau

	Irailak 1-12	13-30
MALLORCA •		
DEYA APTU. 2LL occ 4 pers	OB 186	186
TORRE AZUL H. ***	GB 418	394
OFERTA RIU ***	ME 394	329
DELTA H. ****	ME 417	361
OFERTA HIPOTELS ****	ME 557	485
• MENORCA •		
CLUB ANDRIA APTU. 1LL occ 3pers	OB 295	240
SOL Y MAR APTU. 2LL occ 3pers	OB 338	419
BARCELO PUEBLO MENORCA H. ***	ME 440	440
ALMIRANTE FARRAGUT H. ***	HG 566	392
• IBIZA •		
CENTRAL PARK APTU. 2LL occ 3pers	OB 302	302
BARCELO PUEBLO IBIZA H. ***	ME 389	386
FIESTA SAN DIEGO H. ***	ME 451	356
SOL IBIZA H. ****	ME 613	597
• TENERIFE (Pto. de la Cruz)		
CHIMISAY H. ***	HG 306	291
BONANZA PALACE H. ****	ME 405	372
H10 SAN FELIPE H. ****	ME 490	490
SEMIRAMIS H. ****	ME 494	478
• TENERIFE - HEGOALDEA •		
FIESTA OASIS PARAISO H. ***	ME 335	324
FIESTA PARAISO FLORAL H. ***	GB 439	439
IBEROSTAR LAS DALIAS H. ****	ME 472	470
• LANZAROTE •		
LAS GAVIOTAS APTU. 2LL occ 3 pers	OB 297	332
SIROCCO APTU. 2LL occ 4 pers	OB 302	302
BARCELO LA GALEA APTU. ***	ME 444	444
BEATRIZ PLAYA H. ****	HG 470	456
BEATRIZ COSTA TEGUISE H. ****	HG 519	519
• FUERTEVENTURA •		
PUERTA DEL SOL APTU. 2LL	ME 312	-
TOFIO H. ***	ME 393	-
SOL GORRIONES H. ****	ME 465	-

EUROPA ETA AFRIKA IPARRALDEA

• DUBROVNIK • 8 egun / 7 gau	Irailak 3
CAVTAT H. ***	HG 524
CROATIA H. ****	HG 672
• AZOREAK • 8 egun / 7 gau	Irailak 6
COMFORT INN PONTA DELGADA H. ***	HG 549
DO MIRANTE APTU. ****	HG 499
• ESTAMBUL • 8 egun / 7 gau	Irailak 6, 13, 20 eta 27
BIRBEY H. ***	HG 354
ROYAL APTU. ****	HG 413
• TUNEZ • 8 egun / 7 gau	Irailak 1-30
NESRINE H. ****	ME 347
TUNEZ HARRIGARRIA	
HOTEL ***	MO/ME 426
IKUSTEKOAK: Dougga, Cartago, Sidi Bou Said, Túnez, Kairouan, Nefta, Tozeur, Chott el Jerid, Douz, Matmata, Gabes, Djerba, El Djem, Sousse y Skanes.	
• EGIPTO •	Irailak 13, 20 eta 27
EGIPTO - HARMAKIS 8 egun / 7 gau	
LUXUZKO HOTELA STD	MO/HG 555
4 GAU ITSAS BIDAIA NILOAN ETA 3 GAU KAIRON	
EGIPTO - AMON RA 12 egun / 11 gau	
LUXUZKO HOTELA STD	MO/HG 688
7 GAU ITSAS BIDAIA NILOAN ETA 4 GAU KAIRON	

ZANZIBAR

9 egun / 7 gau
IRAILAK 14 eta 21
SEA CLUB KIWENGWA H. 1º SUP
GUZTIA BARNE **1.130**

KARIBEA 9 egun / 7 gau

DOMINIKAR ERREPUBLIKA	Iraila
• PUNTA CANA •	
BARCELO BÁVARO VILLAGE H. ****	GB 650
FIESTA BEACH H. LUJO	GB 799
NATURA PARK H. *****	GB 715
IBEROSTAR DOMINICANA H. LUJO	GB 899
CATALONIA BÁVARO BEACH H. *****	GB 850
• BAYAHÍBE •	
IBEROSTAR HACIENDA DOMINICUS H. LUJO	GB 950
MEXIKO	
• CANCUN •	
IMPERIAL LAGUNA H. ***	OB 650
MELIA TURQUESA H. *****	GB 1.000
• RIVIERA MAYA •	
CLUB CARACOL VILLAGE H. ****	GB 799
CATALONIA RIVIERA MAYA H. ****	GB 815
IBEROSTAR PARAISO BEACH H. LUJO	GB 1.058
IBEROSTAR PARAÍSO DEL MAR H. LUJO	GB 1.058
KUBA	
• LA HABANA •	
GRAN CARIBE NEPTUNO H. ***	HG 555
GRAN CARIBE PLAZA H. ****	HG 644
MELIA HABANA H. *****	HG 750
• VARADERO •	
GRAN CARIBE CLUB KAWAMA H. ****	GB 745
RIU LAS MORLAS H. ****	GB 753
MELIA VARADERO H. *****	GB 908
• LA HABANA / VARADERO •	
GC NEPTUNO H. ***/	
RIU LAS MORLAS H. ****	HG/GB 678
MELIA HABANA H. *****/	
SOL PALMERAS H. ****	HG/GB 823

Irteerak Bilbotik, Kroaziakoak, Azoreetakoak, Egiptokoak, Karibekoak eta Zanzibarkoak izan ezik (horiek Madrildik). Prezioak pertsonako lagela bikoitzean eta aurretik aipatutako erregimenean bestelakorik aipatzen ez bada, currez esandako irteera konkretuentzat bakarrik, informazio gehiago gure bulegoetan. Karburantearen igoera, tasak, bisa eta gestio datuak ez daude barne. Janarierregimena: OB: Ostatua Bakarrik; ME: Mantenu Erdia; HG: Hotela eta Gosaria; GB: Guztia Barne; MO: Mantenu Osoa. Prezio zuzenak tipografiko akatsik egon ezear. **ESERLEKU MUGATUAK.**

**Kostara
IHESI**

%20
rainoko
DESKONTUA

IRAILA ETA URRIA

GALIZIAKO KOSTA	ALMERIAKO KOSTA
BRAVA KOSTA	TROPICAL KOSTA
MARESME KOSTA	DEL SOL KOSTA
DORADA KOSTA	DE LA LUZ KOSTA
DEL AZAHAR KOSTA	VERDE KOSTA
VALENTZIako KOSTA	SANTANDER
BLANCA KOSTA	ASTURIAS
CÁLIDA KOSTA	

ZURE OPORRENGATIK EGIN DEZAKEGUN GUZTIA EGIN EGITEN DUGU.

VIAJES IBERIA

PREZIOA BAINO ASKOZ ERE GEIHAGO...

902 108 108
viajesiberia.com

Atzeskua

OIHANA ELORZA

Jabi Baltzategi/ Golf irakaslea

Zer irakasten diezu golf ikasleei lehenengo egunean? Materiala erakutsi eta, batez ere, makilari nola heldu. Eskuekin makilari nola heltzen diozun, haraxe joango zaizu pilota. Postura ere oso garrantzitsua da, eta golfean jokatzeko postura egokiak erakusten diet. Indarrrik ez, teknika behar da golfean.

Jende asko etortzen da golfean jokatzeko ikastera, eta laster, Zarauztik etorriko den irakaslea izango dugu asteburuetan, golf jokalaria profesional bat.

Ez zen, ba, modan zegoen kirol bat?

Ez, ez. Gero eta jende gehiago etortzen da, bai Debagoien osotik baita inguruko herrietatik ere.

Gainera, hasten diren guztiek jarraitzen dute, normalean. Jendea *engantxatu* egiten da, nolabait.

Irelore golf eskolan, golfean jokatzeko ikastera etortzen da jendea, eta entrenamendu tokia da euren dako. Golfean jokatzera Arabara joaten dira gehienak, 18 zuloko zelaietara.

Oñatin egin nahi dute-na 18 zulokoa izango da?

Bai, bai. 18 zulo eta praktikak egiteko beste bederatzi zuloduna, uste dut.

Proiektua aurrera doa.

Aurrerantzean ere esango dute Oñati aberatsen herria dela.

Aberatsen eta aberaskumeen kirola esatea ohiko bihurtu da, baina ez da horrela. Hona era guztietako jendea etortzen da, dirudunak eta langileak. Golf zelai batzuetan kuota altuak kobratzen dituzte, eta baliteke horietara denek joan ahal ez izatea, baina hona bai.

Bai, horixe.

Askok diote estresaren aurkako kirola dela.

Hemen norberak norberaren aurka jokatzeko du; zeure buruarekin haserretu edo zoriontzen zara.

Golfean jokatzeko duen lagun batek esan dit ikasten baino gehiagotan etsitzen duela batek ikasi ondoren.

Egia esan dizu. Makilak nola heldu eta zein postura hartu ikasi duzu; ondoren, pilota ahalik eta ondoen bota nahi duzu. Lehenengo, zulutik ahalik eta gertuen

botatzen saiatzen zara; gero, zulora sartu nahi duzu.

Asko praktikatu behar da kirol hau, teknika ikasi eta asko landu behar da.

Ikea enpresako presidentek esan du oso gizon aspergarria dela, golfean jokatzeko duela.

Aspergarria da golfa?

Bai, zera! Nik kirol asko egin ditut eta guztietan dibertigarria da golfa.

Euri asko bota du azken egunetan. Zein egoeratan dago zelaia?

Oso ondo dago. Aurreko asteetan ez du batere euririk egin, eta oso lehorra zegoen, lehorregia. Orain kolore berdea ere hartu du, eta oso ondo dago.

Dena prest domekako txapelketarako?

Bai. Joan den urtean jende asko etorri zen eta aurten ere horixe espero dugu. Eskolako txapelketa txikiak ere antolatzen ditugu, eta guztietan hartzen du parte jendeak.



“Eskuekin makilari nola heltzen diozun, haraxe joango zaizu pilota”

“Oñatiko golf zelaiak 18 zulo eta praktikak egiteko beste bederatzi izango dituela uste dut; proiektua aurrera doa”

“Egindako euriak ondo utzi du zelaia. Dena gertu dugu domekako txapelketarako”

► Oñati /53 urte / Irelore golf eskolako maisua

PIPERRAUTSA

Errolda


Debagoienak bizi maila altua du eta handia da debagoiendarraren erosteko ahalmena, batez beste. Ez daukat datu zehatzik, baina inguruari begiratu, uste dut ahalmen hori bideratzen ari dela neurri handian bigarren etxebizitza erostera ibarretik kanpo. Kantabrian, Errioxan eta, bereziki, Donostian.

Honaino ez dago arazorik, bakoitzak daki zer egin bere soberakinekin. Arazoa hasten da zergen zama arindu nahi denean. Jakina da etxebizitza maileguz ordaintzea kenkari dela errenta aitortpenean, eta horrek balio duela bigarren etxebizitzarako ere, baldin eta hau bihurtzen bada bizileku foru ogasunaren aurrean. Nire kontuetan, debagoiendar dezente dago ibarrean bizitzen eta kanpoan erroldatuta, hau da, ibarrak benetan biztanle gehiago ditu erroldak dioena baino. Horrela, udalei arazoa sortzen zaie: Aldundiak biltzen dituen zergetatik dirua datorkie erroldaren arabera eta diru horrekin zerbitzuak eman behar dizkiete benetako biztanle guztiei.

Areago. Ibarrek dinamika handia duelako enpresan eta unibertsitatean, milaka lagun datoz lanera edo ikastera, eta hauetatik asko geratu egiten dira astean zehar. Alokairupean baina erroldatik kanpo. Hauei ere zerbitzuak eman behar eta Aldunditik dirurik ez.

Ona litzateke erroldak eta Aldundiak kontuan hartzea egoera hauek. Ze bide honetatik ere deskapitalizatzen ari da Debagoiena.

MIKEL IRIZAR



Ormazabal
BARNE ARKITEKTURA

Garibai 6C • 20500 Arrasate
Tel: 943 71 19 81
GIPUZKOA

- SUKALDEAK
- ZERAMIKA
- ARGITERIA
- ETXERAKO ALTZARIAK
- BAINUAK